

uk

141. zenbakia / 2008 uztailak 15





**PIXKA.BAT
ES.MUCHO**

UKAN RECORDS

Hartu doan
pixkabatesmucho.com
webgunetik.

**EGOKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

IKER PEREZ NOLA
Hizkuntza/Lehenbiziaren Sailburuordea

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Uda pasatzera urrundik gurera etorri diren umeak.
7. LEHEN ETA ORAIN. Ereaga.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Ekain Larrinaga.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Leioako pasabidea.
28. ARGAZKIA. Ereagako bainuetxea.
30. BERBETAN. Iñaki Salvador.
34. FOTOGRAFIA. Umeen begietatik, Ane Basagoiti.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Gaurik Laburrena, Getxo.
43. MUSIKA. NoDrama. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Elkarren eta Aizkorriren proposamenak. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Itsas Joko Atlantikoak, Getxo eta Sopela.
46. ELKARRIZKETA. Peio Unzurrunzaga, gai jartzaila.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Menuak euskaratzeko sareko itzultzailea.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Katipunen taldea, 1960. Bittor Egurola.
54. AITORMENAK. Aitor Ibarra Auo, Zuberoa Iturburu.

Azala: Ane Basagoiti



PERI'S SCOPE

30 Iñaki Salvador

Berbetan
Getxoko Jazz jaialdian kontzertua emango zuelako aitzakia baliatuz gipuzkoarraz berba egiteko aukera ez genuen galdu gura izan.

11 Ekain Larrinaga

34 Umeen begietatik

46 Peio Unzurrunzaga

13 Irantzu Agirre

54 Auo

Izan solidario, izan GETXOPHOTO



**GET
XO
PHOTO**

GETXOPHOTO 2007an parte hartu zuten argazkilarik ospetsuek kalean ipini zituzten irudiak poltsa, amantal, zorro eta mahai-oihaltxo bihurtu ditugu, artikulua original bakarrak sortuz. Behar hau lan merkatuan sartzeko zailtasunak dauzkaten pertsonak birziklatu dituzte Ecolinea enpresaren bitartez. Irabaziak ATFAL Getxo Pro-Sahara elkarteari emango zaizkio.

GETXOPHOTO 2008 irailaren 11tik urriaren 12ra
+info: www.getxophoto.com

Non eskura daitezke artikulua hauek?

House Dream
Algortako Etorbidea 88
Algorta (Getxo)




Bilatu zure Renault "Km.0"

Bilbo Berri Getxo-ren web berrian

www.seminuevosengetxo.com

BILBO BERRI
Bizkerre, s/n - ALGORTA. Tel. 94 430 68 81

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 4891 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Ander P. Goikoetxea,
Maitane Nerekan, Zuberua Iturburu

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Inge Beitia

KOLABORATZAILAEK: Bittor Egurola,
Oskar Fernández, Unai Amezaga, Itsaso Arana,
Gaizka Escudero, Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra
Lepoan Euskara Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF


LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko
herri aldizkari eta euskara elkarten
Topaguneko partaide da

ERAKUNDE LAGUNTZAILAEK



gugeu

Ekimen bat

Udako oporrak hartu baino lehenagoko azken aurreko zenbakia duzue hau. Hilaren bukaeran beste UK batek ikusiko du argia eta abuztuko etena eta gero, atzera itzuliko gara irailean. Baina guk oporrik (udan behintzat) ez ditugu hartuko, UK-k sortutako beste ekimen bat prestatzen emango dugu-eta abuztua. Ekimen hori GETXOPHOTO fotografia jaiardia da, irailaren 11tik urriaren 14ra ospatuko dena.

Hurrengo zenbakietan jaialdi honi buruzko berri gehiago jasoko duzue baina UK honetako 2. eta 10. orrialdeetan ekimen honi lotutako abian ipini dugun beste proiektu baten berri ematen dugu. Labur azalduta, GETXOPHOTO 2007an parte hartu zuten argazkilari ospetsuek kalean ipini zituzten irudiak poltsa, amantal, zorro eta mahai-oihaltxo bihurtu ditugu, artikulu original bakarrak sortuz. Baina ideia hau baino gehiago, produktu hauek sortu duen lantaldea goraiatu nahi genuke *Gu geu* honetan. Izan ere, lan merkatuan sartzeko zailtasunak dauzkaten pertsonak egin dituzte artikuluok, hau da, alkoholiko ohiek, prostitutek, paperik gabeko lagunek... Eta lan ederra egin dute. Iazko GETXOPHOTOri bukaera polita eman diogula uste dugu. Laster arte.

UK-ko lantaldea

flasha > hondeamakinak



Hondeamakinak aspaldian jabetu ziren gure eskualdeaz eta aspalditik dabilta gure inguruaren jatorrizko itxura *desitxarutzen*. Argazkia Sopelako Loroño kaleko bidegurutzearen inguruan hartu genuen. Landa ederrak desegin dituzte beste makina bat txalet (zer bestela?) eraikitzeko bertan. *No comment.*



GETXOKO UDALA

Uda pasatzera gure artera / Berrito ere, Saharako eta Ekialdeko Europako umeak Getxora etorri dira uda gure artean pasatzera. Herriko hainbat familiak euren erreteko atak zabaldu dizkiete eta pare bat hilabetez Arrigunagako eta Azkorriko hondartzetan bainatzeko, Telletxe plazan olgetan ibiltzeko eta Algortako eta Portu Zaharreko jaiztan dantzatzeko aukera emango diete. Goiko argazkian, Getxoko Udalerxean egin zieten harrera ekitaldian agertzen dira, Imanol Landa alkatearekin eta zenbait zinegotzirekin batera. Ongi etorri gazteok eta uda ona pasa! o / Argazkia: **Asier Mentxaka**

LEIOAKO GIZARTE eta HEZKUNTZA-FOROA



PARTE HARTU

Hezkuntza munduan interesatuta zaude?

Zelan hobetu dezakegu hezkuntza mundua Leioan?

Parte hartu nahi duzu Foro honetan?

Zein gai tratatu nahi zenuke?

Proposamen aldian gaude.

Ikusi orain arte lan mahaiak osatzeko gehien baloratu diren gaiak:

Kulturartekotasuna, Hezkuntza Premia Bereziak,

Elkarbizitza eta genero berdintasuna.

HARREMANETARAKO:

94 607 25 76

hezkuntzaforoa@gmail.com

HELBIDEA:

Kultur Leioa. GIZARTE ETA HEZKUNTZA FOROA

JOSE RAMON AKETXE PLAZA, II. 48940 LEIOA



Iraganez doa denbora* beti / EREAGA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > Raining Hood



Urduiz, 2008ko ekaina

Testua: **Xa2 Paya**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Duela zenbait mende
Uribetingham-en
herritar denak udan
beldurtuta zeuden.
Sir Euryk erasorik
egiten bazuen
guztiak babesera
hurreratzen ziren
Raining Hood abisatuz
berandu baino lehen.

2

Raining Hood azaldu zen,
herritarren lider
Euryren soldaduak
uxatzeko laster;
ez zuten denbora izan
egiteko ezer
guztiak hil zituen
eskuin eta ezker
bizkarrean zeraman
ezpatari esker.

3

Sir Euryrentzat ez zen
sekulako mauka,
baina kartaz beteta
zeukan berak mahuka:
Raining Hood hiltzea zen
lehen zein azken pauta
eta lagun hoberik
ezin zuen hauta...
ezpata alperrik zen
Sir Guolderen aurka.

* Doinua: Sagutxo batzuekin

Uribitakoran parte hartu nahi duzu?
Bidaliezaguzu atal honetan agertzea
nahi zenukeen argazkiren bat eta
bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti!
uk@aldizkaria.biz

getxophoto > 2007ko argazkiak birziklatu dituzte



Algortako House Dream (Algortako etorb. 88) dendan eros daitezke artikuluok



Berriro ere, Algortako kaleak eta bazterrak euskarri ezberdinetan aurkeztutako argazkiez beteko dira irailean GETXOPHOTO jaialdia dela eta. UK aldizkariaren ekimenez sortutako Begihandi elkarteak proiektu berritzailea burutu du 2007. urteko jaialdiko argazkiez baliatuz. Joan den urtean kaleetan ikusi ahal izan genituen lonak eta oihalak, poltsak, zorroak, amantalak eta mahai oihaltxoak egiteko erabili dituzte. Pieza guztiak bakarrak dira. Lana aurkitzeko zailtasunak dituzten Ecolinea Gobernuz Kanpoko Erakundeko gizon-emakumeek fabrikatu dute materiala eta horren salmentarekin bildutako dirua ATFAL Getxo Pro-Sahara elkartearentzat izango da. Dagoeneko, Algortako House Dream dendan eros daitezke materiala; jaialdian bertan ere eskuratu ahal izango da. Pieza bat eskuratzen duten guztiak honekin argazki bat egin eta info@getxophoto.com helbidera bidaltzera animatu nahi dituzte Begihandiko lagunek. Jaialdiaren webgunean eskegiko dituzte guztiak, album dibertigarria osatuz. GETXOPHOTO jaialdia irailaren 11tik 14ra ospatuko da, kaleko erakusketak urriaren 12a arte ikusgai egongo badira ere. ○

Informazio gehiago: www.getxophoto.com

saiaz getaria



HOTELA

Roke Deuna 25
280808
Getaria
Gipuzkoa



..haria



...lehengo garaiek...



...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

e-komunitatea > uribe kostako blogari euskaldunen topalekua



Mikel Iturbe eta UKBERRI.NET agerkari digitaleko lagunek e-UKomunitatea, Uribe Kostako ziberkomunitate euskalduna jarri dute martxan. Eskualdeko euskarazko blog, fotolog eta webguneetako edukiak era erraz batean topatzeko aukera emango du ekimen berri honek eta ziberkomunitate euskalduna osatzea eta sendotzea du helburu. Komunitatean parte hartzeko, e-komunitatea@ukberri.net postara idatzi behar da. Azaroaren 8an bost urte betetzen ditu UKBERRI.NET agerkari digitalak; urteurrena ospatzeko hainbat proiektu abiaraziko dituztela iragarri dute eta hor kokatzen da, hain zuzen ere, e-UKomunitatea. Egitasmo berri guztiak bost ardatz nagusiren inguruan kokatuko dira: euskaraz bizitzeko tresnak abiatzea, komunitate euskalduna sarean trinkotzea, eskualdeko komunikazioa sendotzea, eragileen arteko sinergiak sortzea eta teknologia berriak herritar eta euskararen eskura jartzea. ○

UKren 102. alerako egindako elkarrizketan hartutako irudia

informatika > Windows Vista eta Office 2007 euskaraz



Microsoft-ek Windows Vista sistema eragilearen eta Office pakete berrienaren euskarazko bertsioa kaleratu zuen ekainean. Elhuyar Fundazioak egin du euskaratzeko lana, nahiz eta Microsoftek finantzatu. Eusko Jaurlaritzak, aldiz, hizkuntza zuzentasunaren bermea eman dio, baina ez diru laguntzarik. Erraz instalatzeko pakete arinak daude sarean, *language pack* gisa. Erabilpena sustatzeko, sariak dituen kanpaina birala (*Egin klik euskarari* kanpaina) jarri da martxan eta ordenagailu ekoizle batzuen (HP, Dell eta Inves/Investronica) kolaborazioa lortu dute. Enpresa horiek salduko dituzten ordenagailuetan euskarazko paketeak aurrez instalaturik egongo dira. Windows XP-ren euskarazko bertsioak izan zituen 50.000 deskargak gainditu nahi dituzte Vista-rekin. ○

www.microsoft.es/eus



"Polita izango litzateke herriko jai batzordeetako lagunek etorkinak kontuan hartzea egitarauak prestatzerakoan"


Ekain Larrinaga > Getxoko udaleko imigrazio teknikaria

Malakate plaza, estartak... Getxoko betiko topalekuak agertzen dira Ekain Larrinagaren umetako oroitzapenetan: "*Txikitako koadrila berbera daukat oraindik*". Gaztea den arren (33 urte ditu), esperientzia franko dauka Immigrazio kontuetan. Zuzenbidea ikasi eta kulturarteko bitartekaritzan espezializatu zen Madrilan. Han hiru urtez lanean ibili ostean, 2004an sorterrira bueltatu zen inmigratio teknikari legez lanean hasteko: "*Lanpostu honek jauzi kualitatiboa izan da niretzat; orain etorkinen egoera juridikoaz arduratzeaz gain, gizarteratze eta sensibilizazio politikak diseinatu behar ditut eta hori oso lan aberasgarria da*". Getxoko errealitate berriaren aurrean baikor agertzen da; hala ere, bi norabidetan lan egin behar dela uste du: "*Getxo aldatu egin da eta gehiago aldatuko da oraindik. Aldaketa orok gatazka bat dakar berarekin, baina aukera berriak ekartzen ditu ere bai. Beraiekin batera lan egin behar dugu guk, harrera herria gara eta*". Integrazioarako bidean, hezkuntzan eta esparru publikoetan egin behar da indar gehien: "*Getxoko eskaintza kulturala ona da baina etorkinek eskaini abal digutenarekin osatu beharko genuke. Polita izango lirateke etorkinak jai batzordeetan parte hartzea eta beraien jatorriko kultura kontuan hartzea egitarauak prestatzerako orduan; kalearen ikuskera interesgarria daukate*". ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan Reprografia
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antigua Golf - Getxo
Tf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

- Imprimatze eta plano kopiak •
- Kartelak kolorez eta z/b •
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
- Fotokopiak kolorez eta z/b •
- Era desberdinetako koadernaketak •
- Plastifikazioak •
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
- enmarkaketak •



Udal Gizarte Zerbitzuak 2007an

Getxozarren %9,7k jaso zuen iaz udal zerbitzuaren laguntza, gutxi gora-behera 8.000 bat lagunek; eta erabiltzaileen %64 Algorta, Neguri eta Getxo (Andra Mari) ingurukoak izan ziren

Urtero legez, aurreko urteari dagokion Gizarte Zerbitzuen Memoria aurkeztu du oraintsu; bertan jasotzen dira emandako laguntzak, egindako ekimenak, elkarlaneko ekintzak eta gauzatutako egitasmoak. Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Elena Coriak eman du 2007ko datuen berri eta adierazi duenez, "gure gizarte politikaren helburua da heritarrei beraien bizi proiektuak aurrera eramatera lagunduko dieten zerbitzu publikoak eskaintzea".

Pasa den urteko jarduerak jasotzen dituen Gizarte Zerbitzuen Txostenaren arabera, oinarritzko Gizarte Zerbitzuen erabiltzaile gehienak bizirauteko arazo ekonomikoengatik edota norbanakoaren autonomia arazoengatik jo zuten udal zerbitzura. Horien %64 Algorta, Neguri eta Andra Mari ingurukoak izan ziren, eta %36 Areeta eta Erromokoak; eta guztien %56 andrazkoak izan ziren.

Getxozarren %9,7k jaso zuen zerbitzuaren laguntza 2007an. Guztira 3.501 familia bururi eskaini zieten arreta, gutxi gorabehera 8.000 bat laguni. Iaz 1.218 kasu berrik jaso zuten arreta, gehienak arazo ekonomikoengatik izan baziren ere, Menpekotasun Legearen harira menpekotasun balioztatze-ekasak ere areagotu egin ziren; 341 etxebizitza egin zituzten; 3.334 jarraipen-elkarrizketa, 13 larrialdi erantzun; 70 koordinazio-batzar eta 889 ez-programatutako jarraipena egin zituzten. Norberaren autonomiari



Gizarte Zerbitzuen eta Behargintza zentroaren arteko elkarlana azpimarragarritzat jo dute

dagokionez, artatutako etxebizitzaren eta erabiltzaileen kopuruak behera egin zuen (erabiltzaileek adinean gora egin eta egoitzetan sartu direlako), ostera telelaguntza zerbitzuko erabiltzaileen kopuruak gora egin zuen. Bestalde, Oinarritzko Errentako laguntzak areagotu egin ziren, baina Ez-Aldizkako diru-laguntzen kopuruak behera egin zuen.

Iazko hobekuntzen artean hurrengoak aipatu dituzte: Oinarritzko Gizarte Zerbi-

«Pasa den urteko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileen %56 andrazkoak izan ziren»

tzuen langileen kopurua egonkortzea, Behargintza Enplegu Zentroagaz elkarlanean jarduteko protokoloa, diru-laguntzak bideratzeko administradore-unitatea hobe-

tzea etab. Gizarteratze atala ere izan zuen gogoan Coriak; boluntariora (laguntzak, hitzarmenak eta topaketak), drogomenpekotasunen aurrezaintza (komunitate eta eskola arloetan), inmigrazioa eta kulturartekotasuna (Kaixogetxo, AISA etab.) eta Nagusien Etxeko programak. ○

Datu batzuk

- **Aurrekontua:** 10.035.915 euro eta 2.607.550 euro beste erakunde publikoek
- **Oinarritzko G. Z. erabiltzaileak:** getxozarren %9,7
- **Emakumezkoak** erabiltzaileen %56
- **Memoria osoa:** www.getxo.net
- **Gizarte Zerbitzuak:** 94 466 01 01 / Foruak kalea 8
- **Gizarteratze zerbitzua:** 94 466 01 30 / Martikoena kalea 16
- **Harremanetarako:** gizartez@getxo.net

Paella Eguna eta

Itxas-Argia kultur elkartearen **urrezko ezteiak**



Aspaldiko Paella Egunean ateratako argazkia

Paella Eguna orain dela hiru urte bete zituen urrezko ezteiak, eta ekimen berezi hori aspalditik antolatzen diharduen elkarteak, Itxas-Argia kultur elkarteak, hain zuzen, laster beteko ditu 50 urte. Kultur elkarte legez sortu zenetik mende erdia eman dute euskal kulturaren alde lanean, bai dantza arloan, mendi taldearen ekimenen bitartez, Paella Egunean etab. Horren albotik, urtean zehar eta ziuurrik hurrengo urtean ere ospakizun ekitaldi bereziak antolatuko dituztela jakinarazi dute Itxas-Argiatik.

Uztailaren 25ean, Santiago egunean, bariak aurten, izango da Paella Eguna. Ostera hori baino lehenago, bada Paella Eguneko zaleak urduri jartzen dituen kontu bat: eguzki-oihalen banaketa da. Itxas-Argiatik jakinarazi dutenez, pasa den urteko erreserba daukatenentzat oihalak hartzeko izen-ematea hilaren

15ean eta 16an izango da (iazko txarteltxoak daukatenei bakarrik emango diete eguzki-oihala); eta oihalak soberan geratuko balira hilaren 17an banatuko lirarteke. Izen-ematea Itxas-Argiako egoitzan (Iturribide 24, beheko solairua) edota telefonoz deituz egin ahalko dira hurrengo ordutegian: 19:00-21:00.

Paella Eguna ohi legez txistularien kalejiragaz hasiko da (9:00) Itxas Argiako Egoitzatik Aixerrotarainoko bidea eginez; 10:30ean Paella lehiaketan izena emateko epea zabalduko da (10 euro), gero ALBEkoen bertsoakaz gozatze-ko aukera egongo da (13:00) paellak aurkeztu baino lehen (14:00) eta sari banaketaren (17:30) ostean Aker Beltz taldeagaz erromeria egongo da. Beste barik, Itxas-Argiakoei urte askotarako! Eta gainontzekoei, Paella Egunean "lasai" ibili eta primeran pasa! ○

Harremanetarako: 94 430 34 11

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Garaizar
berrikuntzak

- igeltserotza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Ilieta kalea 1 • ALGORTA

SAKELAKO TELEFONO OPERADOREEN AZTERKETA

Udaleko Gobernu Taldeak bultzatutako lan taldeak sakelako telefonia operadoreek udalerrian dituzten eta edukiko dituzten igorgailuen eragina aztertzeko ikerketa egitea erabaki dute. Gaur egun lan taldea osatzen duten kideak ondorengoak dira: Gobernu Taldea, udal alderdi politikoaren ordezkariak, "Antenas No" elkarteak, Telefonia Operadoretako ordezkariak, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioko ordezkariak, FEMP, EUDEL eta Eusko Jaurlaritzako Inguruneko Saileko kideak. Azterketaren inguruan zera azaldu zuen Hirigintzako zinegotzi Joseba Arregik: "Helburua udalerrian sakelako telefoniaren igorgailuen kokapena eta aurreikusita duten hedapena ere azterzea da, zerbitzua bermatzen duen proposamena egin ahal izateko eta aldi berean, hedatze kontrolatua, orekatua eta guztien artean hitzartua lortzeko, denon lasaitasunerako".

IA 400 TONA ZABOR GEHIAGO BATU DITUZTE

ekainaren 15etik uztailaren 6ra bitartean udalerriko hondartzak garbitzen dituen lan taldeak 583 tona hondakin batu ditu; pasa den urtean denbora epe berdinean 193 tona baino ez zituzten batu. Hondakinen eragileak ur biziak eta baga-itsasoa direla azaldu dute, eta azken asteotan Getxoko hondartzak horien ondorioak jasan dituztela.

SANEAMENDU-SAREAREN 30 KM BERRITUKO DITUZTE

Uriolen kalteak direla eta, hurrengoan horiek saihesteko aldeetako bat saneamendu-sarea zaharberritzea dela ondorioztatu du Getxoko Udalak. Udalerriko saneamendu-sarearen 100 km-etatik 30 km edo aztertu eta premia handiena daukatenak eraberrituko dituztela jakinarazi dute, eta horretarako milioi bat euro bideratuko dutela adierazi dute.


moda gaztea
opariak

IRATI

Torreña 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

Irantzu Agirre > harpa jotzailea

“Bederatzi urte daroadaz New Yorken, harpa eta Musika Hezkuntza ikasten”



Argazkian, Irantzu Agirre

Harpa ikasketetan sakondu nahian New Yorkera abiatu zen orain 9 urte Irantzu Agirre (Getxo, 1980). 1905ean sortutako sona handiko Juilliard School musika, dantza eta aktore eskolan ikasi du getxoztarrak eta egunotan jaioterrian egin dugu topo beragaz. Santanderreko bakarkako zein orkestragaz batera eskaini dituen kontzertuen bitartean eta Parisekoa baino lehen beragaz berba egiteko aukera eduki dugu.

—Zelan sortu zitzaizun harparekiko zaletasuna?

—Gogoan daukat txikitan amak zituen musika zintak entzunez jolasten nuela, batzuk musika klasikokoak ziren eta beste batzuk abeslariak, uste dut hortik datorkidala edota hor sortu zitzaidala harpa jo gura izatearen nahia. Bost urte nituela-edo esan nien gurasoei harpa jotzen ikasi gura nuela eta 8 urteagaz hasi nintzen Erandion Cristina Sanchez irakasleagaz. Ostean erdi-mailako ikasketak Bilbon egin nituen eta goi-mailako ikasketak egitera Madrilera joan behar izan nuen; han Maria Rosa Calvo Manzanogaz ikasi nuen. Bitartean lehiaketetan parte hartzen hasi nintzen eta kontzertuak eskaintzen nituen. Hala, hemendik

harpaz egin ahal nituen ikasketa guztiak egin nituen; nik ikasten jarraitu gura nuen, baina ez nekien nora jo. Behin lehiaketa batean, mutil baten harpa entzunaldia entzun nuen, oso ona iruditu zitzaidan, eta dena amaitu zenean berarengana hurbildu nintzen galdetza ia non ikasten edo ikasi zuen... eta New Yorkera helbide bat eman zidan.

—Eta New Yorkerantz... zein urtetan?

—1999an abiatu nintzen harantz, harpa jole hark esandako eskolan onartu nindutela eta bertan, Juilliard School musika eskolan, ibili nintzen harpa-ikasketak egiten 6 urtez Nancy Allen irakasleagaz. Ostean Musika Hezkuntza ikasi dut New York's Universityn, maiztean amaitu berri ditut ikasketak; eta bitartean harpa Emily Michelegaz ikasi dut.

—Betiko leloa, goi-mailako ikasketak egitera kanpora joan behar izatea; besteak beste horrek eskatzen duen dirutzagaz...

—Orain gutxienez Musikene dago, baina nire garaian ez zegoen ezta Musikenerik ere. Bestalde, diruarena, egia esan, nik zorte handia eduki dut. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Espainiako Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren diru-laguntzak eta Nicanor Zabaleta beka jaso ditut. Nicanor Zabaleta musika beka Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen du; hasieran harpa ez zuten bekaren barruan hartzen, guk galdetu genuen ia zergatik zen hori (Zabaleta ere harpa jolea zen), eta ostean sartu zuten, hara aurkeztu eta

«New Yorkera noa berriro, irakasle legez lan egitera urte betez»

bigarren ahaleginean lortu nuen eskuratzea.. —New York, New York... hangoa beste mundu bat da.

—Hasieran oso txarto pasatu nuen, batez ere hizkuntzagatik. Ikastolan oso txarto konpontzen nintzen ingelesagaz eta ikasitako apurrak joan nintzen New Yorkera. Ikasketak, apunteak, azterketak... dena ingelesez egitea oso gaitza izan zen, hasieran dena ulertzeko arazoak izan nituen, baina bertan ingelesezko eskolak ere ematen genituen, eta apurka-apurka ikasi dut. Txoke kultural handia izan zen, hango jendea oso desberdina da, Getxo eta New York oso desberdinak dira.

—Eta orain ikasketak amaituta, hemendik aurrera zer?

—New Yorkera noa berriro, musika eskola batean irakasle legez jarduteko urtebeteko baimena eman didate, lan egiteko baimena urte baterako baino ez dute ematen... gero gerokoak. ○

Nazioarteko Folk jaialdian Irlandako, Eslovakiako eta Getxoko dantza taldeek eskainiko dute aurten erakustaldia



Argazkian, Getxon dantza egingo dute lagun irlandarrak

Zilarrezko ezteiak ospatu baino lehenagoko urtea du aurten Nazioarteko Dantza eta Folklore jaialdiak eta ohi legez aurtengorako hiru eguneko egitaraua prest dauka udalerriko Itxartu Dantza Taldeak.

Hilaren 21ean hasi eta 23ra bitartean egongo da atzerriko zein bertoko dantza, kultura, folklorea ezagutzeko aukera Getxon.

Lehenengo egunean Irlandako Absolutely Legless taldeak jardungo du. Bigarrenetan etxeko taldearen txanda izango da, eta Itxartu taldearen euskal dantzen erakustaldiaz gainera, antzinako jantziak eta doinuakaz gozatzeko

aukera egongo da. Hirugarren eta azken egunean Eslovakiako Maj Folklore taldeak itxiko du Getxoko XXIV. Nazioarteko Folklore Jaialdia.

Ikuskizun guztiak Algortako Bihotz Alai plazan egingo dira eta dantza zein hiru herrialdeetako kultura eta folklorea gozatzeko hitzordua gaueko 10:00etan ipini dute. Urtero legez, jaialdirako sarrera doakoa izango da.

Hala bada, Irlandako eta Eslovakiako doinu, jantzi, dantzak etab. ezagutu gura dituenak eta euskal tradizioagaz gozamen hartu gura duenak badaki noiz eta nora joan. ○

ALBE-REN BERTSO JAIALDI MUNDIALA HILAREN 16AN

Heldu da uztailea eta beragaz batera urteroko bertsojaritza-hitzordu garrantzitsu eta interesgarrietakoa, Bertso Jaialdi Mundiala. ALBEK (Algortako Bertsolari Eskola) antolatzen duen urteroko ekitaldien artean xarma berezia darion horietakoa da hilaren 16an egingo dena. Aurtengo bertso-saioan jardungo duten bertsolariak hurrengoak dira: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Fredi eta Xabi Paia, Amets Arzallus eta Sustrai Colina. Zita gaueko 10:00etarako ipini dute, ohi legez, Algortako Bihotz Alai plazan, eta esan barik doa sarrera doakoa dela.

BIGARREN ESKUKO LIBURU AZOKA ARRAKASTATSUA AURTEN

Ekain amaieran antolatu zen III. Bigarren Eskuko Liburu Azoka arrakastatsua aurten. Prezio sinbolikoan (euro baten inguruan) salgai ipinitako 12.000 bat liburuetatik %85 saldu ziren. Aurreko urteotan 6.000 euro inguru batu izan dira, baina aurten marka guztiak apurto eta guztira 10.000 eurotik gora batu dute. Salgai egondako liburuak pertsonek partikularrek liburutegiei emandakoak izan dira gehienak eta aurreko ekitaldietan legez, batutako dirua kultura edo hezkuntza proiektu solidario bati emango diote, oraindik zehaztu ez dutena.

MUSIKA IKUSKIZUN BEREZIA ANTOLATU DUTE HILAREN 19RAKO

Argi Beltza izenagaz aurkeztu dute hilaren 19an eskainiko duten musika ikuskizun berezia. Bertan Tirri-Tarra fanfarreak, Itxartu Abesbatzak eta Sotto Voce Orkestrak parte hartzen dute, bakoitzak musika bere aldetik ulertzen eta jorratzen du, alabaina, Bihotz Alai plazan egingo duten ikuskizuna hirurek elkarlanean prestatu dute, denek elkarregaz jardungo dute. Hitzordua 21:30ean dago ipinita eta doakoa da sarrera.



Basurto
Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

Andere Olaeta > uda egitasmoko begiralea

“Ekimenetako begiraleek askotan ez dakite euskaraz, eta horrek gazteleraz egitera behartzen gaitu”

Uztaila osoan zehar aisialdirako gunea dute haurrek Uda egitasmoaren barruan. 424 umek tailerrak egingo dituzte, irteerak, jolasak... Bederatzi talde daude, horietako bi gazteleraz eta gainontzekoak, euskaraz.

—Zertan datza Uda kanpaina?
—Umeen artean aisialdia bultzatzeko ekimena da, baita euskara sustatzeko ere, printzipioz. Tailerrak eta jolasak egiten ditugu eta egun osoko irteera bat ere egingo dugu.
—Zuen egitekoa begirale lana da, ezta?
—Beno, nik uste nuen baietz, baina orokorrean, egiten ditugun ekimen guztietan izaten ditugu begirale propioak. Gurea, kasu horietan, zaindari lana izaten da gehiago. Beste batzuetan, igerilekura edo hondartzara goazenean, orduan begiralearena izaten da gure lana, ekintzarik programatuta ez dagoenean. Bestela, tailerretan guk ez dugu jolasik prestatu behar.
—Zer egin duzue eta zer duzue prestatuta?
—Atzo, esaterako, Leioako suhiltzaileengana joan ginen. Bertan azaldu ziguten zertan datzan euren lana, lekua erakutsi eta bideo bat jarri ziguten. Gaur, berriaz, papera lantzeko tailerretan gaude. Datozen egunetan xakea izango dugu, kontsumo eskola, irteerak...
—Zenbat lagun zaudete zuen taldean?



Andere Olaeta eta Ekiñe Sarria euren taldeko umeakaz

—Taldea bakoitzeko begirale bi gara eta gurean hemeretzi ume dauzkagu. Euskarazko taldea da. Zortea dugu, umeek euskaraz badakitelako. Beste kontu bat da euren artean egitea. Hori gehiago kostatzen zaie, baina oraindik txikiak dira eta, esanez gero, euskaraz egiten dute. Beste talde batzuetan arazoa sortzen da, ume batzuek ez dakitelako euskaraz. Horrek taldearen hizkuntza erabilera baldintzatzen du euskarazko taldeetan.
—Ekimen guztiak euskaraz egiten dituzte?

—Ez, askotan ezin dugu. Adibidez, atzo suhiltzaileak egon ginen eta batzuk saiatzen ziren euskaraz egiten, baina gehienek ez zekiten. Gainontzeko ekimenetako begiraleek askotan ere ez dakite eta gazteleraz egitera behartzen gaitu.
—Gustura egon ohi dira umeak?
—Baietz uste dut. Begiralearen lana garrantzitsua da arlo horretan, umeen izaera konfiantza hartu, eurakaz jolastu, parte hartu eta behar dutenak integratzen lagundu. ○

Zahartzaroko dementzia

Ordenagailu **bidez buruko bizkortasuna lantzeko** ariketak egingo dituzte 25 lagunek



Udalak abendua bitartean gauzatuko du egitasmoa

Buruaren bizkortzea eragiteko teknikak eta adimena indartzeko ariketak konbinatu dituzte eta adinekoren zaintzaileei horiekaz lan egiten erakutsiko diete, Udaleko Gizarte Ekintzak abiatu duen egitasmoan. Horrela, zahartzaroko dementzia duten pertsonen okerrera egin dezaten galdutako dute.

Uztailaren hasieran abiatu zuten egitasmoa, abendura arte iraungo du eta zahartzaroko dementzia duten 25 pertsonari eta 50 bat zaintzailei zuzendu diote. Udaletxeak 30.000 euro inbertitu du programa honetan eta gaixoen etxetan

bertan garatzen dabilta.

Bost psikologo dabil etxerik etxe eta gaixoei banan-banan egiten dituzte saioak, azken horien ama hizkuntzan, euskaraz edo gazteleraz. Izan ere, tratamendu desberdinak erabiltzen dituzte, dementziaren graduaren arabera. Dementzia maila moderatua dutenek hamabost saio jasoko dituzte eta maila altua dutenek, hogeitasei saio.

Bukaeran eta egitasmoaren ondorioak eskuartean dituztenean, diagnosis egingo dute, datozen urteetan zerbitzua hobetzeko helburuarekin. ○

140.000 EUROKO ESKULTURA JARRIKO DUTE MENDIBILEN

Mendibile Jauregia, Txakolinaren egoitzaren inguruko parkean beste 139.313 euro gastatuko du Udalak, eskultura bat ezarriko baitu bertan. Juanjo Noveliak egingo du, 5'7 metroko altuera izango du eta 9'4 metroko zabalera; hostoen itxura du. Karbono altzairuzkoa izango da eta zazpi tonako pisua izango du. Eskultura horregaz “paisaia, herritarrek eta bereziki, Bizkaiko txakolinaren elaboratze lanetan dihardutenak omendu” gura dituzte, “gizabaloreak azpimarratuz eta ingurua hobetuz, herritar guztien eskura jarri eta herriko nortasun irudi berri bat bilakatuz”.

TXOPOETAKO ETXEBIZITZA SOZIALAK ZOZKETATU DITUZTE

Uztailaren 3an zozketatu zituzten Lamiako eta Txopoetan eraikitzen dabilzan etxebizitzak. Leioan egin dituzten alokairu sozialeko lehenengo etxeak dira. Guztira 58 etxebizitza egingo dituzte, baina horietatik hogei auzotarrei ostatu emateko izango dira, euren etxeak botako baitituzte auzoa Berrantolatze Plan Bereziaren barruan. Gainontzeko 38 etxeak 513 pertsonaren artean zozketatu dituzte. Hiru logela eta 84 metro koadro izango dituzte etxeek eta batzuek beste 200 euro hilean ordainduko dute bizizilagunek.

OLATU ARTIFIZIALA IZANGO DU PINOSOLOKO KIROLDEGI BERRIAK

2.000 metro koadroko azalera, hiru metroko hodiun olatu estatikoa, hodirik gabeko olatua, 425 pertsonentzako harmailak eta lurrazpiko aparkalekua izango ditu Pinosolon ezarriko duten kirolkomplexuko olatu artifizialeko instalazioak. Abenduan hasiko dira eraikitzen eta 2009ko urrian zabalduko dute. Europar gisa horretako lehen olatua izango da.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK

BEST

ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK eta INPRESIO DIGITALAK egiten ditugu

e-mail: hurstab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tif: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

XXII. Nazioarteko Folklore Jaialdia**Irlandako eta Boliviako dantza taldeak arituko dira** Trabudu Dantzari Taldeagaz batera

Uztailaren 23an izango da Nazioarteko Folklore Jaialdia eta aurten XXII. edizioa ospatuko dute. Alzaga Kiroldegian egingo dute ekitaldia, 19:30etik aurrera. Oraingoan Irlandako Absolutely Legless eta Boliviako Tradiciones Bolivianas taldeek hartuko dute parte Astrabuduako Trabudu Dantzari Taldeagaz batera. Kiroldegiko ekitaldiaren aurretik, kalejira egingo dute Erandioko kaleetan zehar eta ekitaldirako bidean.

Heldua da Erandioko Nazioarteko Folklore Jaialdia, 22 urte beteko baititu aurten. Uztailaren 23an dantzatuko dute Astrabuduako Trabudu Dantzari Taldekoek. Harekin batera dantzatuko dute Absolutely Legless talde irlandarrak eta Tradiciones Bolivianas talde boliviarrak. Alzaga Kiroldegian jardungo dute, 19:30etik aurrera, baina giroa berotzen hasteko, kalejira egingo dute Erandioko kaleetatik, dantzaldia baino ordu erdi lehenago. Tartanga, Jado, Obieta, Geltokia eta metroko zelaigunetik igaroko dira kiroldegira iritsi aurretik.

Irlandatik iritsi da Absolutely Legless, baina Edinburgon sortu zuten tal-



Iazko jaialdiko irudi bat

dea hainbat dantzari eta musikari adituk 1997an. Talde gaztea bada ere, ospea lortu du, ikuskizun zirraragarriak eta berritzaileak eskaintzen dituelako. Izan ere, irlandar tradizioiko dantzak erakusten ditu, zapata-kolpe gogor zein leunakaz. Ondorioz, dantza originalak gauzatzeko dituzte, baina tradizioari eutsiz.

Are gazteagoa da Tradiciones Bolivianas taldea. Boliviatik etorria, 1999an osatu zen taldea. Herrialdeko folklore

tradizioak errespetatuz, haurrengandik hasita eskaintzen dute hezkuntza artistikoa. Maila Teorikoko Ikasketa ziuertagaria eskuratzen dute ikasleek.

Bolivia osoko eskualdeetako dantzak lantzen dituzte, errepertorioa etengabe berrituz eta "folklore landua" legez eza-guna dena eginez. Ondoren antzerki eszenara egokitzen dituzte dantzak, baina, hori bai, estilizazio teknikorik egin barik. ○

Sukaldaritza tailerrak

eta apainketakoak **antolatu ditu** Udalak uztailean zehar Bekoa Ikastetxean eta Correosen



Sagardotegi menua lantzeko tailerreko ikasleak

Entsalada eta pasta bakarrik jan ohi da udan, baina erandioztarrek badute alternatibarik. Izan ere, sukaldaritza tailerrak egiten ari dira uztailean zehar Bekoa Ikastetxean. Sagardotegi menuagaz hasi zituzten ikastaroak hilaren 4an. Ondoren, pintxoak egiten ikasi dute, baita koktelak ere. Uztailaren 15ean kebab ikastaroa egingo dute, te eta pastena 18an, Asiako sukaldaritza 21ean eta jatetxeetako postreak 22an. Azken horietarako eman du izena jende gehienek. Guztiak egiten dituzte Bekoa Ikastetxean eta 17:30etik 20:00etara bitartean.

Apainketa tailerrak, berriz, Correosen

egiten dabilta, 18:00etatik 21:00etara. Hilaren 7an ekin zieten ikastaroei kurtzak apaintzeko tailerragaz. Edontzi-azpikoak apaintzen ere ikasi dute. Uztailaren 29an, berriz, pitxerrak apainduko dituzte eta 30ean, esekitokiak.

Printzipioz, 15 eta 35 urte bitarteko lagunei zuzenduta daude ikastaroak, baina plazak libre badaude, gainontzekoentzat zabalduko dira. Ikastaro bakoitzean hamar bi lagunentzako tokia dago eta ikastaroa egin baino hiru egun lehenago eman behar da izena. Orain arte emakume gehiagok eman du izena gizonen baino. ○

ASUAKO JAIK OSPATUKO DITUZTE 18TIK 20RA

Sardinada batek emango die hasiera Asuako jaiei uztailaren 18an, barikuan. Hori 21:00etan izango da eta gauerdian, dantzaldia. Luhartz taldea arituko da. Hurrengo egunean, zapatuan, erakustaldia egingo du Goi Alde Dantza Taldeak, 19:30ean. Gaueko dantzaldia Egan taldearen eskutik iritsiko da oraingoan. Jubilatuek, ordea, domekan ere izango dute festarako aukera, indarrak badute behintzat. Izan ere, mokadua prestatuko diete 13:00etan.

EUSKAL HERRIKO V. GRAFFITI LEHIAKETA UZTAILAREN 19AN

Egun osoko egitaraua antolatu dute Euskal Herriko V. Graffiti Lehiaketarako. Hilaren 19an egingo dute. Goizeko 9:00etan hasiko da graffiti erakusketa, Extra Largos taldearen eskutik eta Alzaga Kiroldegian. Lehiaketako finalisten arteko lehia, berriz, Desanexio kalean eta metro geltokian izango da, goizeko hamarrek eta arratsaldeko seiak artean. Gazteentzako tailerrak ere prestatu dituzte goizeko hamarretatik eguerdiko ordu batera, Desanexio kalean eta metro geltokian. Arratsaldean, berriz, graffiti *performance* egingo du TTP taldeak eta DJ Oleaktifek erakustaldia eskainiko du, biek metro geltokian. Sariak 20:00etan banatuko dituzte.

ZINEA ETA ANTZERKIA KALEAN UZTAILA OSOAN

El increíble Hulk filma emango dute uztailaren 15ean Astrabuduako Josu Murueta plazan, 22:00etan. Ordu berean baina hilaren 24an, berriz, *Speed racer* jarriko dute Erandio Goikoan. Antzerkiari dagokionez, uztailaren 17an Zanguango Teatro taldea arituko da Irailaren 23a plazan. *Tocata y fuga (en fu reno)* lana antzeztuko dute.

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

**Basolanak**

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13
F. 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Mobila
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



Arazoei agur... **902 54 08 54**

www.arlan.biz

FAMILIA UGARIAREN KATEGORIARENTZAKO CREDITRANS TXARTELA SOPELBUSERAKO

Herriko Sospelbus zerbitzuan erabiltzeko creditrans txartelak banatzen dabilta herriko familia ugariaren kategoria duten sendien artean, familia bakoitzari bi. Ekainaren 23an hasi ziren banatzen. Txartelak eskuratu nahi dituztenek udaletxera joan behar dute, Hall Kulturatera. Bertan aurkeztu behar dute familia ugariaren liburuaren kopia eta errolda agiria. Bi txartelak agortu ondoren, hirugarren bat eskuratu ahal izango dute aurreko biak aurkeztu ostean.

Informazio gehiago:

Udaletxeko Hall Kulturalean eta 94 406 55 19 telefonora deituz

NAZIOARTEKO DANTZA JAIALDIA IZANGO DA UZTAILAREN 25EAN

Dagestaneko Errepublikatik eta Txiletik etorritako dantza taldeak arituko dira Nazioarteko Dantza Jaialdian, datorren uztailaren 25ean. Galdakaoko Andra Mari taldearen eskutik helduko da jaialdia. Udaletxeko plazan izango da, 20:30etik aurrera.

UDAKO MUSIKA ZIKLOA SAN PEDRO ELIZAN, UZTAILAREN 26TIK 30ERA

Hilabetearen azken astean eskainiko dituzte musika klasikoko kontzertuak San Pedro elizan, Udaiko Musika Zikloaren barruan. Lehen egunean, 26an, klarinete eta piano kontzertua izango da. Hilaren 27an, igandearekin, berriz, ahotsak lagunduko du pianoa eta hurrengo egunean, violak. Flauta eta piano kontzertua asteartean izango da, 29an, eta azken egunean, 30ean, Et Arsis soka laukoteak joko du. Kontzertu guztiak 20:00etan hasiko dira.

Santa Mariñeko jaia

Herri bazkaria, **erromeria**, animazioa eta dantza dira aurtengo protagonistak



Sopelako kalejiraren une bat, jaietako aurreko edizio batean

Iritsi da berriro Santa Marina egunaren txanda. Uztailaren 20an izango da eta urtero legez, sopoloztarrek eta urduliztarrek ospatuko dute. Lehenengoek, sopoloztarrek, kalejira egingo dute Udaletxetik hasita eta Santa Mariñeko haitzetaraino. Txupina jaurtiko dute 10:00etan eta jarraian ekingo diote bideari, Barinatxe Taldeko Txistularien laguntzaz. Ordubete beranduago egingo dute meza nagusia Santa Mariñeko basilizan.

Mezaren ondoren egingo dute lore eskaintza eta ohorezko aureskua Fernando Ansoleagaren omenez. Eguerdia iristeagaz

bat egingo dute hamaiketako eta, arnasa hartzeko betarik gabe, 14:00etan, herri bazkaria egingo dute Fernando Ansoleaga parkean. Sabela bete eta gerria mugitzen hasiko dira segituan, Izer eta Alabier trikitilariak erromeria eskainiko bdute eta.

Bitartean, tortilla txapelketari ekingo diote; beranduago askaria egiteko aitzakia paregabea izango da, seguru asko. Haurrek ere izango dute euren tartea eta Begira taldeak jarriko die animazioa Urgitxeta plazan. Bukatzeko, dantzari beste tartea bat egingo diote; ekialdeko dantzak, afrikarrak eta Capoeiraren tartea izango da oraingoan. ○

Minbiziaren aurkako kanpaina

“Eguzkia osasuna da... minbizia ez”, dio kanpainaren leloak



Uztailaren 6an egin zuten kanpaina Arrietara hondartzan

Azkenean iritsi dela uda eta eguzkia jotzen hasi dela. Barra-barra jarri dira hondartzak, jendez gainezka. Urtero legez eta topikoa ematen duen arren, eguzkiak sor ditzakeen arazoez mintzatzen hasi dira medikuak; ez ei da txantxarako gaia.

Sopelako hondartzetan biltzen da jende asko eta asko eguzkiak gorputza belztuko ote dien. Hondartza horietako batean, Arrietaran, azaleko minbiziaren aurkako kanpaina egin zuten uztailaren 6an. “Eguzkia osasuna da... minbizia ez” leloa aukeratu zuten. Eguerdiko 11:00ak eta 15:00ak bitartean, eguzkiak gogorren jotzen duen orduetan, haren izpietatik nola babestu azaldu zioten jendeari Minbiziaren Kontrako Elkarteko lagunek.

“Eguzkia garrantzitsua da osasunarentzat, tajuz eta neurritz hartzen denean”, esan zuten. Horien pean gehiegi egotean, ordea, “erretzeko arriskua dago”. Horregatik eskaini zituzten hain-

bat gomendio, hala nola, eguerdiko orduetan eguzkitan ez jartzeko gomendatu zuten, adibidez.

Betaurrekoak, txanoak eta kamisetak erabiltzeko ere gomendatu zuten eta nahikoa babes duten kremak erabiltzeko. Zehazki, crema eguzkitan jarri baino ordu erdi lehenago botatzeko esan zuten, baita uretatik atera bezain laster eta bi orduan behin ere. Gainera, laino-

«Krema eguzkitan jarri baino ordu erdi lehenago bota behar da, eta gero bi orduan behin»

tuta dagoenean ere babestu behar dela oharrarazi zuten. Ura ere, nahikoa edateko esan zuten, ez deshidratatzeko.

Azkenik, hurrekin kontu handiz ibiltzeko eskatu zioten jendeari. Esan zuten, “hiru urte arteko umeek ez lukete eguzkitan egon beharko”. Bada, babestu eta eguzkiarekin gozatu! ○

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

LAIKAK Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

Dantzariak Polonian

Azken urteotan bidaia ugari egin dituzte Berangoko Otxandategi dantza taldeko lagunek: Frankfurt, Bartzelona, Galizia... Ekainean Poloniako mendebaldean dagoen Wroclaw hirira joan ziren taldeko 14 lagun eta 5 musikari-laguntzaile. Bertan, dantzaka, kantuka eta herri kiroletan aritu ziren hiriko plaza nagusian. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Autonomia Erkidegoa ezagutarazteko Espainiako Estatuan eta Europako zenbait herritan burutzen ari den kanpainaren baitan kokatzen da ekimen hau.



Santa Ana Jaiak

UZTAILAK 25, BARIKUA

- Txupin eta kale animazioa (17:00)
- Pailazoak (18:30)
- Zaldi probak (19:00)
- Maiachi Guadalupano, musika eta dantzekin (20:00)
- Amaier taldearen kontzertua (23:00)

UZTAILAK 26, ZAPATUA

- Plater tiroketa Artetxutesen (09:30)
- Kalejira txistulariekin (11:00)
- Meza Santua (12:00)
- Dantza emanaldia eta nagusientzako hamaiketakoa (13:00)
- Txirindulari lasterketa (17:00)
- Umeentzako tailerrak (17:30)
- Kale antzerkia (19:00)
- Pilota txapelketa (20:00)
- Kontzertuak: Betagari, Jo ta Hanka eta talde lokala (23:00)

UZTAILAK 27, DOMEKA

- Kalejira txistulariekin (11:00)
- Jolas-parkea (12:00etatik aurrera)
- Zaldi probak (19:00)
- Sardinada herrikoia (20:00)
- Jaiaren amaiera (21:00)



Barrika Barri Egoitza > XV. urteurrena

“Lan egiteko moduak eta bezeroekiko konpromisoak bereizten gaituzte”



Gabirel Lazaola, Barrika Barri Egoitzako zuzendari gerentea

XV. urteurrena ospatu berri du Barrikako Barrika Barri Zaharren Egoitzak. Ekainaren 22an egin zuten urteurren jaiak eta bertan egoitzatik igarotako guztiak gogoratu zituzten meza hunkigarri batean. 1993. urteko ekainean ireki zituen ateak Barrika Barri eta Gabirel Lazaolak, gaur egungo zuzendariak, hasieratik hartu zuen parte: “Etxebizitza batzuk eraikitzeke egitasmoa zegoen eta proiektua bertan behena gelditu zen. Lurren jabeak zirenek egoitza bat egitea erabaki zuten. Horrekin batera geriatria ikastaro bat antolatu zuten langileak trebatzeko”. Gaur egun, 99 gizon-emakume bizi dira egoitzan eta 2005etik zerbitzu kontzertatua da.

Lehenengo urteak gogorrak izan baziren ere, 2003. urtetik aurrera kalitateari garrantzia ematen hasi ziren eta esparru horretan lorpen garrantzitsuak eskuratu dituzte. 2006an ISO kalitate eta ingurugiro agiriak lortu zituzten. Gaur egun, FQM

kalitate sistemaren bidez jarduteko lan egiten dute: “Lan eta konpromiso handiagoa eskatzen du, baina kalitate eredu hobea dela uste dugu eta esfortzua egiteko prest gaude”.

Azken urteotan ikaragarri egin du gora zaharren egoitzen arteko lehia. Hori dela eta, lan egiteko moduan berezia izateak garrantzi handia hartu du: “Euren gunasoak zaintzeaz gain, plus bat ematen dieten egoi-

«Etengabe hobetzeko lan egitea da gure erronka nagusia»

tzak bilatzen dituzte seme-alabek. Hor sartzen gara gu; 90. hamarkadan, lanaren bidezko terapia, psikologoak eta aisialdi tailerrak eskaintzen lehenengoetarikoak izan ginen. Lan egiteko moduak eta gure bezeroekiko dugun konpromiso mailak bereizten gaitu”. Orain arte, etengabe hobetzen saiatu dira Barrika Barrin eta horrela jarraitzeko asmoa daukate. ◊



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15

BASTARTENA



URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



VIEJO CAFE

kopak eta
giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

GORLIZKO URA ONARGARRIA DELA ESAN DU JAURLARITZAK

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak urtero egiten duen hondartzetako uren azterketa egin eta gero, Gorlizko ura onargarrria dela ondorioztatu du. Hori dela eta, bainu laburrak hartu eta horien ostean dutxa hartzea komeni dela jakinarazi dute. Hondartzaren osasun baldintzei dagokienez, txarrak direla adierazi du Jaurlaritzak.

JAI ALAI FRONTOIA KUDEATZEKO DEIALDIA

Uztailaren 23a arte, Plentziako Jai Alai Frontoia kudeatzeko lehiaketara aurkeztu nahi dutenentzako deialdia zabalik egongo da. Horrez gain, Azurtegiako aparkalekuan leku bat eskuratu nahi dutenentzako deialdia ere zabaldu dute. Bi horietan interesa daukatenean, Udalaren web orrian aurkituko dute informazioa.

Informazio gehiago: www.plentzia.net

XIV. EUSKAL POLIFONIA ETA HABANERA JAIALDIA

Herriko Santiago jaiekin bat eginez, XIV. Euskal Polifonia eta Habanera Jaialdia ospatuko dute Gorlizen uztailaren 24an gaueko 10:30etik aurrera. Horretan, Bilboko San Antonio eta Algortako Bihotz Alai abesbatzek, Valentziako Alboraya Polifonia Elkarteak eta Gorlizko Lirain abesbatzek hartuko dute parte. Azken hau da, hain zuzen ere, jaialdia antolatzeaz arduratu dena urte hauetan guztietan.

BARRIKA

Kirol azpiegiturak eta berdeguneak hobetu dituzte



39.000 euro inbertitu dituzte kirol azpiegiturak hobetzeko

Barrikako Udala herriko zerbitzuak hobetu nahian dabil. Horretarako, bi ekimen nagusi eraman ditu aurrera azken hilabeteotan. Alde batetik, berdeguneak berreskuratzeko, sastrakak garbitzen eta bideak txukuntzen ibili dira Uribe Kostako Gizarte Zerbitzuetatik bidalitako zazpi emakume eta gizon bat. Ekintza honek Jaurlaritzaren eta Emaus Fundazioaren laguntza izan du eta bazterkeria arriskuan dauden gizon-emakumeak laguntzeko erabili dute. Bestalde, etxola mugikorra jarri dute tenis zelaien

ondoan. Tenis pistak erabiltzen dituzten lagunentzako aldagelak eta Abaroa Tenis Taldearen bulegoa egongo da bertan. Egokitutako komuna duen etxola txiki bat ere jarri dute alboan. 39.000 euro inbertitu ditu Udalak pinu-zurez eginiko etxola eraikitzeko. Erabilpen anitzeko pilotalekua egin artean, etxola mugikorra erabili behar izango dute herriko kirol taldeek. Behin pilotalekua eginda, erakunde bakoitzak bere bulegoa eta behar dituen zerbitzuak izango ditu bertan. ○

Uzt. 15 - Uzt. 28

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GORLIZ

► **Ramon Ariasen arte erakusketa (oleak eta akrilikoak)**. Udala erakusgela. Abuztuaren 7ra arte. 19:00etatik 21:00etara.

MUSIKA

BERANGO

► **Santa Ana Jaiak**. Amaieur. Uztailak 25. Betagarri, Jo ta Hanka. Uztailak 26. Egan. Uztailak 27.

GORLIZ

► **XIV. Euskal Polifonia eta Habanera Jaialdia**. Uztailaren 24a, 22:30.

GETXO

► **"Argi beltza" ikuskizuna**. Uztailak 19, zapatua. Algortako Bihotz Alai plaza. 21:30. Doan. Tirri-tarra fanfarrea, Itxartu Abesbatza eta Sotto Voce Orkestra.

PLENTZIA

► **Fundacion Tony Manero**. Uztailak 19, Astillero. 23:30.

► **Dantzatzeko musika Astilleron**. Ertzaintzaren banda. Uztailak 22. 13:00. Sopolako banda. Uztailak 26. 19:30.



► **Jaiak**

Santiago jaiak Gorlizen uztailaren 24tik 27ra

Hil bukaeran izango da gorlizarren txanda. Santiago jaiak ospatuko dituzte uztailaren azken asteburuan. Hilaren 24an, egunenarekin, hasiko dira ospakizunak jaitseragaz. Habanerak eta *Gorliz Jamaikarra* gau tematikoa ere izango dira egun horretan. Barikuan, berriz, futbol txapelketa, mozorroen desfilea, bigantxak, mariatxiak eta Drindots taldearen erromeria izango da. Zapatuan, hilaren 26an, eskulangintza azoka, umeentzako parkea, bigantxak, play back eta dantzaldia egongo dira. Azken egunerako, domekarako, ordea, pilota partidak, nekazal azoka, bakailao txapelketa, kuadrilen arteko herri kirolak, zortziko lehiaketa, bigantxak, bertso saioa eta karroza desfilea prestatu dituzte. Azken sorpresak ere zain dituzte gorliztarrek.

• **Non:** Gorlizen • **Noiz:** Uztailaren 24tik 27ra

ANTZERKIA

BERANGO

► **Pirataklovn kale antzerkia**. Santa Ana auzoa. Uztailaren 26a, zapatua. 19:00.

ERANDIO

► **Tocata y fuga (en fu renol)**. Zanguango Teatro. Irailaren 23a plaza, doan eta kalean. Uztailak 17, eguena. 19:30.

BESTEAK

ERANDIO

► **Asuako jaiak. Uztailak 18-20** Sardinada, dantza erakustaldia, Luhartz eta Egan taldeak.

► Euskal Herriko V. Graffiti

Lehiaketa. Uztailak 19. 9:00-18:00. Graffiti erakustaldia. Altzaga kiroldegian.

10:00-18:00. Finalisten arteko lehia. Desanexio kalean eta metro geltokian.
11:00-13:00. Gazteentzako tailerrak: graffiti, scratch eta dj. Desanexio kalean eta metro geltokian.
17:30. Graffiti *performancea*. Metro geltokian.
19:30. Dj Oleaktiff. Metro geltokian.
20:00. Sari banaketa. Metro geltokian.

► XXII. Nazioarteko Folklore

jaialdia. Uztailak 23. Kalejira 19:00etan eta 19:30ean erakustaldia Altzaga kiroldegian. Erandio, Irlanda eta Boliviako taldeak.

URDULIZ

► **Leiho eta Balkoietako Loreen I. Lehiaketa.**

Izena emateko azken eguna: uztailak 30, Kultur Etxean. Lehiaketa abuztuaren lehenengo bi asteetan egingo da.

GORLIZ

► **Zortziko Lehiaketa.** Uztailak 27. Iberrebarri, 18:30.

GETXO

► **Bertso jaialdi mundiala.** Uztailak 16. Algortako Bihotz Alai plaza, 22:00. Doan. Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Amets Arzallus, Xabi Paya, Sustrai Colina eta Fredi Paya. Gai jartzaile, Peio Unzurrunzaga.

► XXIV. Nazioarteko

Folklore jaialdia. Uztailak 21, 22 eta 23. Algortako Bihotz Alai plaza. Irlanda, Eslovakia eta Euskal Herriko taldeak.

PLENTZIA

► **Karmengo jaiak.** Uztailak 15-18.

► Madalena jaiak.

Uztailak 19-22.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!


BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Leioako pasabidea

Ekainaren 20an zabaldu zuten Leioako Mendibile auzoa eta Musika Eskola lotzen dituen Avanzada gaineko pasabide erraldoia. 900.000 euro behar izan dira zubia egiteko. 3,40 metroko zabalera duen pasabidea oinezkoentzat egokitzeko eraikitze lana oso korapilatsua izan da. Eduardo Caminok bertatik bertara jarraitu zuen prozesu hau eta berak hartutako irudiak bidali dizkigu. Guk, betikolez, zuekin konpartitzen ditugu. Bestetik, txoritxo batek esan digu badirela pasabidearekin pozik ez dauden leioaztarak.

Argazkiak: **Asier Mentxaka eta Eduardo Camino**





La Perla

bainuetxea

Eta ez da Donostia. Argazkia topatu genuenean zer zen ere ez genekien, baina 1896an eraiki zuten La Perla bainuetxea Ereagako hondartzan. Igeretxe hotelaren aurretik zegoen eraikina, azken horrek ordezkatu baitzuen bainuetxea 1913an. Ingurua ere ez da Donostiakoaz oso desberdina; Neguriko txalet eta luxuzko etxeak ikus daitezke hondartzatik hurbil. Urte gutxi iraun zuen bainuetxeak zutik. Uraren gaziak eramango ote zuen itsasoak irentsita, itsaso jeloskorrak? Itsasoa izan baita beti bainuetxea; bainuetxe bizia eta zabala.

[berbetan]

Jazz musikaren arloan, Euskal Herrian ezinbestekoa da Iñaki Salvador gipuzkoarra. Donostian sortua (1962), Pasaian bizi da orain hamahiru urte, etxebizitzaren prezioari esker edo haren erruz. Euskal musikari askorekin kolaboratu du, Mikel Laboagaz bereziki, eta atzerrikoak ere jardun du. Dantza eta antzerkirako musika ere sortu eta moldatu du Tanttaka, Trapu Zaharra eta Ur Teatro taldeentzat, esaterako. Hainbat filmatarako ere konposatu ditu soinu bandak. Uztailearen hasieran bisitatu zuen gure eskualdea, Getxo Jazz jaialdian jotzeko. Kontzertuaren aurretik tartea egin zigun beragaz berba egiteko.

Iñaki Salvador

Bat-batean

Testua: **Zuberoa Iturburu** / Argazkia: **Manix Diaz de Rada**

—Ez duzu lehen aldia Getxo Jazz jaialdian, ezta?

—Ez, orain urte asko etorri nintzen lehen aldiz, gazte nintzela. Taldeen arteko lehiaketan parte hartu nuen. Ondoren, hainbat aldiz jo dut Getxon baina profesional modura. Orain zazpi urte egon nintzen azkenekoz, 2001ean.

—Orduan zugaz joko zuten musikariak hautatzeko aukera eman zizuten.

—Hori da, bai. Jaialdiak egin zidan oparia izan zen hura. “Carta Blanca” atalaren barenan izan zen eta hiru musikari hautatzeko esan zidaten. Olentzerori gutuna bidaltzearen antzekoa izan zen.

—Oraingoan beste modu batekoa izango da?

—Bestelako “Carta blanca” baten modukoa izango da. Aurrekoaren aurkakoa izango da, baina osagarria eta zoragarria. 2001ean izen handiko musikariak ekartzeko kontua; hau da, beraiekin jotzea nahi zenukeen musikariak baina, era berean, beste une batean beraiekin jotzea zaila litzatekeena. Hura izan zen opari erraldoia! Oraingoan, berriz, antzekoa da baina aurkakoa aldi berean. Betiko lagunak gonbidatu ditugu, bizitzan zehar beraiekin jo izan dut eta. Bederatzi lagune-

ko taldea gara, hainbat belaunalditakoak gara baina denak euskaldunak. Iñaki Salvador Noneto da gure izena.

—Zer eskainiko duzue?

—Disko bat atera nuen orain urte eta erdi, *Faro*, eta disko horretako kantuak joko ditugu. Donostiako Jazzalditik proposatu zidaten talde handi bat osatzeko jaialdian aurretik jo izan zuten eta bertakoak ziren musikariekin, eta abesti batzuk egiteko. 2005ean izan zen, Jazzaldiaren 40. urteurrena zela eta. Musika guztia nik sortu nuen, Jabier Muguru-

zuna egin behar genuenez, jazz euskaldunaren festa izango zenez, ezagutzen nituen musikariak izan behar zuten baita ere. Bestetik, hainbat belaunalditako musikariak izatea nahi nuen. Beteranoak, nire kintakoak askoz gazteagoekin elkartu nituen, belaunaldi berri batekoak, baita ikasle eta ikasle ohiak ere.

—Eta musika aukeratzeko?

—Musika berria sortu nuen. Hau da, jadanik konposatutako musika erabili beharrean, berria sortu nuen, taldeari merezi zuen garrantzia aitortzeko. Aspal-

“Liluragarria da musika eta testua bateratzea; hau da, istorio bat hitzak dituen musikarekin kontatzea”

zaren kantu bi izan ezik. Disko horretako abestiak joko ditugu Getxon.

—Zein irizpide erabili zenituen musikariak hautatzeko?

—Oinarritzko bi irizpide erabili nituen. Batetik, aurretik beraiekin lan eginda nengoena pertsonak hautatu nituen. Niretzako hori funtsezkoa da musika egiteko, elkar ulertzea, musikalki zein pertsonalki; azken batean, horixe baita oinarritzkoena. Ospaki-

diko ezagunak izan arren, ez genuen egin nahi *revival* modukoa. Aurrera begiratzean ilusioa pizten zitzaidan. Nire estiloko musika egin nuen eta beste bi abesti sartu nituen diskoan. Azken aldian asko darabilt formatu hori, abestiarena. Oso gustuko ditut abestiak. Disko eta kontzertu hartarako Jabier Muguruzaren abestiak aukeratu nituen, *Benino edo Benito* eta *Haurrak handitzen...*



...doaz. Oso gustuko dut Jabierrek musika nola egiten duen eta idazten dituen testuak edo idazten dizkietenak. Hitzak dituzten abestiak jotzea gustuko dut.

—Ez da oso ohikoa jazzak hitzak edukitzea. —Egia esan, ez. Beno, jazz kantari baten kontzertua entzuteraz bazoaz, argi dago baietz, kantuek letra izango dutela. Baina oinarrizkoagoa den talde baten kontzertuan, ez da horren ohikoa, oso musikari gutxi egiten du. Nire kasuan, ordea, gero eta iraunkorragoa da. Abesti formatuak gero eta gehiago erakartzen nau. Liluragarria derizot musika eta testua bateratzeari; hots, istorio bat hitzak dituen musikarekin kontatzeari. Noneto taldearentzat konposatzean, naturalki otu zitzaidan. Hasieran, konposizio musikalak egin nituen baina beste bi falta zitzaizkidan eta letradun abestiak sartzea erabaki nuen. Barneak eskatzen zidan. Gustuko kantak bilatu nituen eta berehala aukeratu nituen Jabierrenak. Hori bai, nire erara moldatu nituen. Ez da oso ohikoa, baina nik gero eta gehiago erabiltzen ditut abestiak letrarekin, hiru pasio baititut musikan: jazz, musika klasikoa eta kantu-egileak.

—Getxora hainbat alditan etorri zara, nola-koa da bertako jazz jaialdia eta ikuslegoa? —Jaialdi berezia da Getxokoa. Soilik Europako jazz eskaintzeko bokazioak sortu zuten edo, hobeto esanda, musikari europarrak egindako jazz eskaintzeko. Izan ere, jazz nongoa den kalifikatzea zaila da baina, pertsonak, badakigu nongoak diren. Musikari horiei lekua egiteko jaio zen Getxo Jazz. Gero, pixkanaka mugak zabalduz joan da eta Amerikako musikari batzuk ere gonbidatu ditu. Halere, hasierako asmoa mantentzen du. Programa bereziki freskoa eskaintzen du, bereziki abangoardista ere bada batzuetan eta arriskatzen du beste jazz jaialdi batzuekin konparatuz gero. Horregatik diogu maitasuna musikariok. Izan ere, beti eskaintzen baitigu ezusteko politen bat, musikazale amorratuenera ere. Berezia da ere ildo horretan.

—Zein musikarirekin gustuko zenuke ari-zea edo errepikatzea?

—Zerrenda amaigabea izan liteke. Musikari gehienek esaten dute jotzen dutenekin ego-tea gustuko dutela. Topikoa da eta egia da, edo horrela izateko saiatzen gara; hots, gustura gaudenekin jotzen saiatzen gara. Hori-ek dira harreman egonkorak. Baina beste batzuekin parranda jotzea ere gustuko dugu, ez dakit musikari guztiok, baina gutxienez fantasia bat bada. Beste batekin jotzea proba-

“Getxo Jazz jaialdi bereziki freskoa da, bereziki abangoardista ere bada batzuetan eta arriskatzen du”

tzea, behin bakarrik balitz ere. Zerrenda horri begiratuz gero, promiskuo konplexua datorkit, ia mundu guztia ateratzen baita bertan. Bai, ia jende guztiarekin joko nuke, jazz musikaren barruan, guztiak baitute zer esan eta zer ekarri. Beno, zehatzago izanda, pianiston kasuan, beraiekin jotzea gustuko genukeen bateria-jotzaile eta kontrabaxu joleak ditugu zerrendan. Izen zehatzak baino, instrumentu horiek aipatuko nituzke. Afinitate berezia dugu horiekin, talde baten barnean, sail berean baikaude, oinarrizko musika eta osagarria jotzen. Musikari asko dira, beraz.

—Beste zein egitasmo duzu eskuarte-zean? —Disco berria kaleratuko dut gehienez hemendik urtebetera. Laukote baten diskoa izango da: pianoa, kontrabaxua, bateria eta ahotsa. Zehazki, Hernaniko abeslari batek

“Mikel Laboak funtsezko gauzak irakatsi dizkit, agertokian zintzotasuna eta egiazkotasuna batez ere”

kantatuko du, Ainara Ortégak. Abestiek osatuko dute lana, hain zuzen ere. *Té doy una canción* izena jarriko diogu, Silvio Rodríguez kubatarraren abesti ezagun daten izena. Izan ere, hainbat kantu-egileren abestiak izango dira, baina gure jazz estilora ekarriak: Rodríguez bera, Pablo Milanes, Joan Manuel Serrat, Fito Paez, Benito Lertxundi

edota Mikel Laboaren kantuak sartuko ditugu eta, beraz, hainbat hizkuntzatan izango dira.

—Gutizia bat izango da? —Bai, bai, nire bizitzako kantuak aukeratu ditut, ez dira gaur egunekoak, urte batzuk badituzte eta oso ezagunak dira. Bertsioak izango dira baina jazzaren koloreekin. —Azken diskoan Muguruzaren kantak

sartzean horrelako zerbait egiteko gogoa piztu zitzaizun ala?

—Argi eta garbi. Horren aurretik ere beste disko bat egin nuen, *Zilbor hestea*. Amaia Zubiriak abesten zuen bertan eta denak ziren kantatutako abestiak. Oraingoan horretara itzuliko naiz, baina aldaera batekin. Orain arte euskarazko abestiak izan dira baina, oraingoan, esparrua zabaldu eta beste zenbait hizkuntzatan ere izango dira kantak. Ingelesa, portugesa, gaztelania, euskara... Ahalik eta hizkuntza gehien sartuko ditut. Diskoaz gainera, hainbat kontzertu eskainiko ditut abuztuan. Bira txikia egingo dut harmonika-jotzaile batekin. Madrildarra da eta Antonio Serrano du izena. Oso musikari ona da, Paco de Luciarene taldean dabil aho-soinua eta teklatuak jotzen. Gainera, espainiar musikaririk ezagunenekin aritu da, Ana Belen, Miguel

—Bai, antzerkia, dantza eta zinemarako musika ere egin duzu. Musikaren esparru guztietan murgildu zara ala oraindik baduzu jorrazteko arlo asko?

—Bukaezina da musikariaren lana, esparru asko baitago lantzeko. Mugak norberak jartzen dizkio bere buruari, irudimena erabiltzea da gakoa. Sukalderako ere egin dut musika. Baina nabilen arloa, dantza, antzerki eta zinea, oso zabala da, horrekin nahikoa dut eta ez dut berritzailegia izateko artegatasunik. Nabilen arloetan sakondu eta ikasten jarraitzearekin nahikoa nuke.

—Mikel Laboagaz batera askotan jardun duzu. Nolako da harremana horren musikari heldu eta maitatuagaz?

—Lagun minak gara, berehala maitatzen den pertsona baita Mikel. Musikalki funtsezkoa da, ia 25 urtez ibili gara batera eta, beraz, aita baten modukoa da musikaren

arloan. Asko irakatsi dit eta batez ere, zintzotasuna irakatsi dit, egiazkotasuna. Agian ez dit akorde zehatzik irakatsi, ez baita teknikoa musika arloan. Bihotz izugarria du, ordea. Agertokian funtsezko gauzak irakatsi dizkit.

—Jazza musika arautuaren barnean sartu dute orain urte gutxi EAEn. Pixkanaka jazz musika hazteko urratsa al da?

“Egoera konplexua da, krisietan dirua moztekotan, ustez beharrezkoa ez den gastuari kenduko zaio lehenik”

—Bai eta ikasle askok du interesa. Kanpoko jendea ere badator. Aldarrikapen historikoa zen eta demanda asko dago musika moderno ikasteko. Jazz musikan arituko diren musikari gehiago egongo dira, profesionalizatzeko bidean urrats txiki bat da, errespetat-

garritasunaren bidean, komatxo artean.

—Beraz, jazzak badu etorkizunik Euskal Herrian?

—Jazzaren etorkizuna ez du markatzen bakarrik hezkuntza arautuaren barnean egoteak. Ondo dago, oinarrizko urratsa da, baina beste alderdi batzuek ere eragiten dute. Egoera konplexua da. Arazo ekonomikoa dago eta kulturari eragiten

dio. Dirua moztekotan, ustez beharrezkoa ez den gastuari kenduko zaio lehenik. Etorkizuna izan dezake jazzak, baina ez da hau une bereziki arrakastatsua, udarekin bero jarri eta jazz jaialdi asko egin arren. ○

aldizkaria **etxean**
jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
Kalea & zenb.....Herria.....
e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37




Umeen begietatik

Algortako argazkilari gazte baten proposamena dakarkizuegu oraingo honetan. Ane Basagoitiren argazkiak dira UK-ko 141. aleko Fotografia atalean bildu ditugunak; azaleko irudia berarena da ere bai. Etxeko txikienen begirada garbiak ederto harrapatu ditu Basagoitik; agian, bihotzez ume izaten jarraitzen duelako izango da hori. Noizbehinka, komenigarria izaten da umeen begietatik begiratzea mundua; batez ere, dena ilun ikusten dugun horietan.

Argazkiak: **Ane Basagoiti**







I

Iñaki Bixitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45
Telletxe 1 T: 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarrí 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

Gaurik Laburrena Getxon

Hilaren 14an gaztelaniazko film laburrak izango dira eta 15ean euskarazkoak



Koldo Almandozen *Columba palumbus...* filma egongo da ikusgai Bihotz Alai plazan hilaren 15ean

Urtero legez, Getxon zine zikloek hurrengo urtera arte oihala jaisten dutenean, film laburrei zabaltzen zaizkie ateak parez pare. Zazpigarren arteko "seniderik txikiena" eta laburrena protagonista izaten da uztailean Getxon orain dela urte askotatik hona. Eta, oro har, udara zinearen lagun mina ez bada ere, jende andana biltzen da Algortako Bihotz Alai plazan Gaurik Laburrena ekimenaren harira. Aurten ere leku horretan izango da zita, 22:00etan, bai hilaren 14an baita 15ean ere.

Ohi legez, lehenengo gaua gaztelaniazko film laburrei begirakoa izango da eta aurtengo egitarauak hurrengo lanak iragartzen ditu: Eider Kadierno Amat getxoztarraren *Los amantes de Estocolmo*, *Canguros* (Borja Gonzalez Santaolalla), *Chocopulpos* (Pablo Llorens), *Cambiar el mundo* (Nacho Vigalondo), *El ataque de los kriteres asesinos* (Samuel Orti Marti), *Limoncello* (Borja Cobeaga, Luis A. Berdejo eta Jorge Dorado), *Las horas muertas* (Haritz Zubillaga), *Taxi?* (Telmo

Esna), *Paseo* (Arturo Ruiz Serrano), *El encargado* (Sergio Barrejon) eta *Test* (Marta Aledo eta Natalia Mateo).

Hurrengo egunean euskarazko film laburren txanda izango da eta honetan ondorengo filmak eskainiko dituzte: *Columba palumbus (uso basatia)* (Koldo Almandoz), *Hezurbeltzak* (Izabene Oñederra), *Olarro* (Eneko Dorronsoro), *Musika* (Asier Urbietta), *Momorro* (Asier Mendoza), *Lo bakarrak* (Iban del Campo), *Itzalak* (Iñigo Kintana), *Baten bat* (Erlantz Astorkiza) eta *Alabama* (Iban Ayesta).

«Nacho Vigalondo, Telmo Esnal, Koldo Almandoz, Eider Kadierno eta abarren lanak egongo dira ikusgai»

Filmen erakustaldiaz gainera, ziurrenik horietako baten bateko zuzendariak ere hurbilduko dira Getxora Gaurik Laburrenagaz gozatzeko asmoz, berbarako Eider Kadierno getxoztarra, eta euren lanen gainean berba egiteko aukera ere egon liteke. ○

NoDrama eskualdeko "metala"

I-Mind estreinako lanak jasotako harrera onak tirada berria egitera bultzatu nau



Informazio gehiago: www.myspace.com/nodramamusic eta harremanetarako: 685 720 543

Orain dela sei urte inguru Leioa aldean sortu zen Voodoo taldearen kedarretatik jaio zen 2005ean NoDrama taldea. Urte horretan bertan maketa plazaratu zuten eta aurtengo martxo hasieran plazaratu dute eurek ekoiztutako *I-Mind* lehenengo diskoa. Aimar Antxiak (abeslaria), Xabier Alzugaraik (baxua), Nikola Goñik (bateria) Koldo Gorozikak eta Iker Llonak (gitarra) osatzen dute taldea eta musika ingelesez entzutera ohituta daudenez, kantuen letra hala, ingelesez, irteten zaizkiela adierazi dute. 10-11 abestiz osatzen da diskoa, izan ere kantuetako bat bikoitza dela azal-

du dute, zati batean akustikoan jotzen dutelako eta bestean "gogorrago". Metal, rock gogorra eta melodikoaren uretan mugitzen dira eta abestiak "ikasbide, ondorio bat duten istorioak" direla aitortu dute. *I-Mind* diskoko 500 bat ale ekoitzi zituzten eta tirada berria egin behar izan dute jendeak egin dien harrera onagatik; lana sarearen bidez, Arteako Gong dendan edota Fnacen eros daitezke. Nikolak dioenez, "diskoa gustuko duenak are gehiago gozatuko du zuzenekoak", horretarako aukerak: hilaren 31n Algortan (Deabruak Teilatuetan, Su Ta Garregaz); irailaren 6an Ondizen (Komagaz). ○

diskoak

Aurtengo Gorakada 10
Batzuen artean
Gor



Hamar urte dira Gor disketxe nafarrak udaran *Aurtengo Gorakada* bildumako ale bat plazaratzen duela, eta dirudienez, *Aurtengo Gorakada 10* lanagaz ziklo bat itxiko dute. Aurtengo bilduman, besteak beste, hurrengo kantu bana sartu dute: Kerobia, Ezinean Lauroba, Equilater, Bihotz Bakartien Kluba, Vendetta...

Galdutako zubixak
Kemen Lertxundi
Gaztelupeko Hotsak



Kemen Lertxundi poeta eta musikari ondarrorarraren lehenengo lana da *Galdutako zubixak*. Testu koaderno batek (kantuen letra eta poemak) eta formatu bikoitzeko diskoak osatzen dute lan hau. Lertxundik batzuetan bakarka eta modu akustikoan abesten du, bestetan Garden rock progresiboko taldeagaz.

"...Dagokiguna"
Ihesbide
Musikerria



2003an Elorrioren sortutako laukotearen lehenengo lana "...Dagokiguna" diskoa. Ihesbide taldearen hainbat abesti hainbat bildumatan entzun ahal izan baditugu ere, 2006an grabatutako maketaz gainera, hauxe da Elorrioko punk-rock taldeak plazaratu duen estreinako cd-a. Berba zuzen, bizi, gordin zein gozoak biltzen ditu 10 kantuko lanak.

Berri Txarrak >

Japoniara eta agurra



Hilaren 19an Barakaldon kontzertua eskaini ostean, Japoniara doaz, berriro ere, Berri Txarrakeko kideak. Bi kontzertu eskainiko dituzte han,

bata Tokioko Marz aretoan hilaren 23an eta bestea hurrengo egunean herrialdeko Fuji Rock 2008 jaialdi entzutetsuaren inaugurazioan. Ondoren, etxera buelta egingo dute udarako Euskal Herrian hainbat kontzertu iragarrita dituzte eta. Dena dela, berri ez hain onak ere aurreratu ditu talde nafarrak, izan ere Mikel Lopez "Rubio"-k, 14 urtez taldeko baxu jolea izan denak, "Zertarako Amestu Tour 2008" amaitzeagaz batera taldea utziko duela; eta bere lekua beteko duenari zortetik onena opa diola jakinarazi du.

Informazio gehiago: www.berritxarrak.net

Green Daykoak >

Foxboro Hot Tubs

Dagoeneko ez da sekretua, zurrumurruek Green Dayren antz handiegia hartzen zioten talde berriari, eta orain bizpahiru hilabete baiezatu zuten, baina despistatuta gabiltzanontzat... Green Day taldeko kideek The Foxboro Hot Tubs talde berria osatu dute, Green Dayko taldekideak eta TFHTkoak berberak dira: Michael Pritchard (edo Mike Dirnt's baxua), Frank Edwin Wright III (edo Tre Coll bateria), Reverend Strychnine Twitch (B. Joe Armstrong), Jason White eta Jason Freese. *Stop Drop and Roll!!!* disko berria ere kalean dago.

Informazioa: www.foxborohottubs.com edota www.greenday.com

Getxoko Andra Mari
Zerbitzu Estazioa

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50
merkeago
garbituko dizugu
autoa!!!!

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km
Getxo / Tel: 94 430 15 00

etorri
eta
ikusii!



ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

Oporraldirako letrak

Elkar eta Aizkorri argitaletxeek **haur-gazte literaturako lan berriak** plazaratu dituzte

Irakurketa, batez ere literarioa, eskola-ordu eta ikasketxeetatik alboratu behar delako iritzia aspaldiko kontua da. Eskolari eta ikasgaiei irailera arte agur esan badiegu ere, ez genituzke literatura-liburuak agurtu behar, literatura ikasteko zentroetatik kanpoko beste mundu bat delako, bestelako ikasgaiak erakusten, gozarazten, azaltzen... dituelako.

Horregatik, udako oporraldian ere umeez irakurketaz eta literaturaz goza dezaten, hurrengo proposamenak dakartzagu, den-denak labetik atera berriak. Elkar eta Aizkorri argitaletxeek txikientzat argitaratu berri dituzten hurrengo zazpi liburuen artean hautatzeko aukera dago. Elkar argitaletxe

«**Joxan Ormazabal, A. Cathrine, Pello Añorga, Yolanda Arrieta, Imanol Azkue...**»

handiak berrikuntzen artean hurrengo aukera eskaintzen du: Joxan Ormazabalen (Zegama, 1948) trilogiaren azkena den *Aitona eta amona bizikletan* (8 urtetik behar koentzat), Arnaud Cathrinen (Frantzia, 1973) *Ez gana elkarrekin zahartuko* (Aiora Jakak euskaratua) eta Eric-Emmanuel Schmittin (Frantzia, 1960) *Oskar eta Andre Araxa* (Miren Artetxek euskaratua). Azken biak 8 urtetik gorakoentzat dira, frantsesetik

liburuak



Amayur. Los últimos nabarros
Miguel de Orreaga
Txalaparta

Batzuentzat "klasikoa" bada ere, gaurko belaunaldiak ahaztuztat" duten liburuak, berrargitaratzea erabaki dute. Miguel de Orreagaren izengoitiak sinatu zuen Pedro Navascues de Alarconek 1923an. Berrargitalpenak ikertzaile eta historialarien iritzi azterketa berriak batzen ditu.




Yolanda Arrieta (Etxebarria, 1963)

itzuliak, gutunen bidez eta haur batek idatziak. Gaiet dagokienez, hurrenez hurren, aitite-amanen eta iloben istorioa, lehenengo maitementzarena eta leuzemiaz gaixorik ospitalean dagoen haurraren kontakizuna dira. Bestalde, Aizkorri argitaletxearen proposamen berrienetakoak ondorengoak dira: Pello Añorgaren (Oiartzun, 1956) *Ipuin-kontalaria* (5 urtetik aurrera), Yolanda Arrietaren (Etxebarria, 1963) *Zazpi pertsonaia istorio bila* (8 urtetik aurrera), Imanol Azkueren (Zumai, 1965) *Bizi, Bixitxo* (6 urtetik aurrera) eta Manu Lopez Gaseniren (Bilbo, 1961) *Gurasoak estu* (5 urtetik aurrera).

Aurrekoa aukeren lagin niniño bat baino ez da, haur literaturaren otzara aukeraz lepo dago, begiak erme eduki eta eskua sartu baino ez da egin behar. ○

Informazio gehiago: www.elkarlanean.com
www.aizkorri.com



Sumendiaren azpian
Malcom Lowry
Elkar

1938ko Defuntuen Eguna Mexikoko Quauhnahuac hiri asmatuan beste edozein egun lakoa izan daiteke Geoffrey Firmin britainiar kontsularentzat, azken eguna izango badu ere. Lowryren testu barroko, iradokitzale eta jostalaria Karlos del Olmok itzuli du.

[kirola]

Itsas Joko Atlantikoak gurean

Getxo eta Sopela izango dira jokoaren topaleku uztailaren 19tik 25era bitartean



Euskal Herriko ordezkariak iazko Jokoetan

Getxoko Kirol Portuan, Abrako uretan eta Sopelako Arrietara hondartzan egingo dira XIV. Itsas Joko Atlantikoetako norgehiagokak hilaren 19-25 bitartean.

Itsas Joko Atlantikoak 1995ean Bretainian sortu ziren eta Europa Atlantikoko eskualde eta herrialdeen kirol, turismo eta kultura arloko sustapenak ekitaldi bakar batean biltzea da euren helburu nagusia. Hori lortzeko asmoz, itsasoagaz estuen lotuta dauden kirolen lehaketak antolatzen dituzte, hain zuzen surf, belan, arraunean, piraguismoan eta urpeko kiroletan. Dagoeneko hainbat diziplina nautikotako Nazioarteko Federazioek aitortu egin dituzte Itsas Joko Atlantikoak. Hastapenetatik parte hartu du Euskal Herriko Kirol Federazioen Elkarteak Jokoaren kirol, kultura eta antolakuntza jardueretan eta orain dela lau urtetik Euskal Kirol Federazioen Batasuna Jokoaren Nazioarteko Batzordeko eskubide osoko kide da. Hala, aurtengo XIV. Itsas Joko Atlantikoak prestatzeko eta hartzeko lehian Portugal eta Irlandari nagusitu zaio gure herrialdea, hau da, Euskal Herriak hartu du

Jokoaren antolatzaile ardurak. Orain arte Bretainian, Galesen, Galizian, Cornwall-en, Eskozian, Asturiasen, Portugal iparraldean, Irlandan, Pays de Morlaix-en (Bretainian), O Salnéen (Pontevedran), Gijonen, Cornwallen eta pasa den urtean berriro Bretainian antolatu ziren Jokoak, eta esan legez, aurtengoak Uribe Kostako bi herritan jokatu dira.

«**Azken hiru urteotan euskal ordezkariak izan dira Jokoetako onenak**»

Hamabost bat eskualde eta herrialdetako (Galizia, Bretainia, Portugal, Austria, Suitza, Italia, Asturias, Katalunia, Andorra, Belgika, Akitania eta Euskal Herria) 800 bat kirolari lehiatuko dira euskal uretan. Horietatik 100 bat kirolarik, teknikaririk eta zuzendaririk ordezkatu dute gure herria bela, surf, urpekaritza, arraun eta kanoen arloetan. Horrez gainera, azken hiru urteotan lortutako irabazle izatearen harrotasuna ere defendatzeko egitekoa izango dute. ○

Informazio gehiago: www.euskalkirola.com
www.celticwatergames.com

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol
moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris.s.l. SERVICIO

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Peio Unzurrunzaga > Algortako Bertso Saio Mundialeko gai jartzailea

“Maila handiko bertsolariak ekartzen ditugu gai direlako esperimentuari aurre egiteko”



Peio Unzurrunzaga

Galdu ezineko hitzordua bihurtu da Algortako Bertso Saio Mundiala. Haren berezitasunak egiten du erakargarri; bertsolariak mozorrotuta ikusteak eta ikus-entzuleekiko hartu-emanak algarak pizten dituzte. Peio Unzurrunzagak hainbat alditan aurkeztu du saioa eta uztailaren 16an ere gai jartzaile gisa ikusi ahal izango dugu, 22:00etan, Bihotz Alai plazan.

—Zerk egiten du mundiala Bertso Saio Mundiala?

—Ez dut ondo gogoratzen, baina uste dut hasierako urteetako batean, 2002an edo, futboleko mundiala jokatu zela eta hortik atera genuela ideia. Lehendik ospatzen genuen jaialdia, baina mundiala izena 2002 inguruan jarri geniola uste dut.

—Gai baten inguruan aritzen zarete beti. Aurten zein izango da?

—Deituiozu aitabitxiari ea esan dezakegun edo ez.

—Pista bat emango diguzu?

—Dagoeneko eman dut.

—Zeintzuk bertsolari arituko dira aurten?

—Getxotik Xabi eta Fredi Payak kantatuko dute eta, gero, Andoni Egañak, Sustrai Colinak, Amets Arzallusek eta Maialen Lujanbiok.

—Izen handiko bertsolariak ekartzen dituzue. Ikus-entzule gehiago erakartzen dute?

—Nik uste jaialdi honek jendea erakartzen duela kartelagatik, bai, baina baita hain berezia izateagatik ere. Jaialdia esperimendu baten moduan hasi zen eta saiatzen gara beti zerbait berria egiten, elementu berriak sartzen. Bertsolariek elementu horiek baliatuz egin behar dute bertsotan eta maila handiko bertsolariak ekartzen ditugu, jakin badakigulako gai izango direla esperimendu horri aurre egiteko. Gainera, jendeak urtero, modu batean

edo bestean, saioan parte hartu izan du eta jendeak eskertzen du hori.

—Pasarteren bat oroitzen al duzu?

—Urtero egon ohi da baten bat. Berezia izaten da bertsolariak jendartera jaisten direnean. Espontaneoak ere asko gogoratzen ditu jendeak, bertso eskolako espontaneoren bat irteten baita beti. Bukaerak ere antzerki modukoak izaten dira. Egoera barregarriak asko daude.

«**Bertsolaritza indartzen ari da eskualdean eta saio hau bereziki gozagarria da**»

—Beraz, bertsolaritza antzepeña da?

—Ez, kontrakoa, baina saio honetan gauza desberdinak bilatzen ditugu eta antzepeñerako tarte txiki bat eskaintzen du; baina ez gabiltza antzerkiaren bila.

—Maialen, Fredi eta Xabi Hegoamerikan ibili dira orain gutxi, bertsotan. Brasileraz kantatzen jarriko dituzu?

—Ideia bat izan daiteke hori. Guk ideiak onartzen ditugu eta egiteko modukoak badira, egingo ditugu. Beraz, ideia baten duena, jar dadila gurekin harremanetan.

—Getxophoton argazkiekin, Bertso Saio Mundialean antzepeña egiten... Zer izango da hurrengoa, bertsolariak dantzan jartzea?

—Ez dakit honezkero dantzan jarri ditugun, baina eskutik hartuta umeen moduan jolasten bai, aulkien jolasean ere bai, alfonbra batean hegan, urpekaritza egiten, autobusa gidatzen... Hurrengoa zer den jakiteko saioa ikustera joan beharko duzue.

—Eta nolakoa da bertaraten den publikoa?

—Denetarik dago, baina inguruan dauden ikuslerik onenak izaten dira, jatorrenak eta ondo pasatzeko gogoia dutenak. Jende asko etortzen da beti, inguruko saioen artean jendetsuena izango da agian. Bertsolaritza indartzen ari da eskualdean eta saio hau bereziki gozagarria da. ○

“Getxo, akordaten naz”

Herriko euskaldun zaharren testigantzak, oroitzapenak eta euskara jasotzen dituen dokumentalaren...

...kopia bat eskuratu...

*...nahi baduzu
“uk@aldizkaria.biz”
helbidera mail bat
idatzi.*

*10 ale dauzkagu
UK-ko harpidedunen
arteana banatzeko*



**akabuko
aleak!!!**



Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48901 Algorta GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tel: 94 491 13 37



BERDINEAN ERE, EMON EUSKARAZ EUSKALDUNAK BEHAR DITUGU



Irailaren 23a plaza - 48950 ERANDIO
94 489 01 28 - euskara@erandioko-udala.net



www.erandioko-udala.net
Irailaren 23a plaza, 48950 Erandio (Bizkaia) ☎ 944 890 100 📠 944 890 187



KULTURAN BAZA
Herrikoia Publikoaren Sektoreak
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Sola
Departamento de Cultura

Euskara ezazu menua

bihurgailu elektroniko berriarekin



1057 termino eta horien eratorriak biltzen ditu bihurgailuak

Oraingo honetan ez gatoz jatetxe edo taberna berri bat gomendatzera; ezta eskualdeko sukaldari bat aurkeztera ere. Bezeroentzat baino, ostalarientzat da aproposago ale honetan dakarkizuegun proposamena. Kartak eta menuak gaztelaniatik automatikoki euskaratzeko tresna informatikoa sortu berri du Donostiako Euskararen Udal Patronatuak eta hori oso tresna erabilgarria delakoan gaude. Ziurrenik, euskarazko karta faltan bota izan duzue eskualdeko tabernaren batean edo euskara "makarronikoan" idatzitako menuren bat topatu duzue noiz edo noiz. Jada ez dago aitzakiarik; itzulpenak era merke, erraz eta ariean egiteko aukera daukate Euskal Herri osoko tabernari, sukaldari eta zerbitzariak. Ekainaren 10ean aurkeztu zuten Victoria

Eugenia antzokian menuak eta plater ize-nak gaztelaniatik euskarara ekartzeko internet bidezko lehen tresna.

Dijitalidadea S.L. enpresak sortu berri duen menu bihurgailuak, hainbat iturri erabiltzen ditu corpusa osatzeko, Leioako Ostalaritza Eskolako *sukaldea.com* web guneetako fondoak, besteak beste. Guztira, 1057 termino eta horien eratorriak biltzen ditu; esaldia osatzeko osagaiak duten portatera berezitua kontuan hartuta, multzotan banatu dira terminoak: osagai nagusiak, hitz anitzeko terminoak, adjektiboak, aditzak, jakien zatiak, prestaera moduak eta gehigarriak. Euskaraz jakin edota ulertzen duten ostalariei zuzenduta dago bihurgailua, edonork erabil dezakeen arren. ○


Informazio gehiago: www.merkatari.net

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA

Asador Goieztzi



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak nomberaren gustura
 - Egunero karta berezia
 - Gaez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
 - Jaun hartze bazkariak zure gustura prestatzen ditugu.

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Lixareriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

Usategi kafetegia



Usategi parkea z/g,
Algorta

*Telf. erreserbak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 - urtarrilak 19)
Buruko minaz bazabiltza, eta lasaia goeratu gura baduzu, medikuarenera joan beharko zenuke. Autoa zer moduz dabil, Ura? Lantzean behin, zelan dabilen ikusteko, azterketa sakon eta orokorra egin behar zaiola gogoratu.

OTSOA



(Urtarrilak 20 - otsailak 18)
Arazozi behar baino garrantzi handiagoa ematen badiezu, azkenean zoratu egingo zara. Gaur egungo teknologia berriak ez zara oso ondo moldatzen; baina lasai, denboragaz eta pazientziagaz dena ikasten da.

ADARRA



(Otsailak 19 - martxoak 20)
Azkenaldian bikotekideagaz denbora asko igarotzen duzu, eta hori oso ondo dago, baina lagunak ez ahaztu. Beharrezan zabiltzanean kontu handiagoa izan beharko zenuke, gero ezusteko txarrik izan ez dezazun.

AITZURRA



(Martxoak 21 - apirilak 19)
Baina zertan ibili zara daukazun itxura xeble horrekin? Ez zarela gogoratzen? Orduan primeran pasatuko zenuen, ziur. Behin eta berriro egiten duzu gauza bera: besteen lepotik barre egin, eta zeure burua babestu.

HOSTOA



(Apirilak 20 - maiatzak 19)
Bizitza profesionalan izugarriko aurrerapausoa emango duzu eta horrek egonkortasuna sortuko du zeure inguruan. Txikitako beldurrak barru-barruan dituzu oraindik. Ordua da horiek gaingitu eta zeure benetako izaera garatzen hasteko.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 - ekainak 18)
Inoiz baino indartsuago zaude. Zeure buruarekiko erakusten duzun konfiantza horrek asko lagunduko zaitu, batez ere zure familian egon daitezkeen gorabehera ezberdinei begira. Izan ere, zeu izango zara oinarriko euskarrietako bat.

GARIA



(Ekainak 19 - uztailak 18)
Batzuetan hobe da isiltzea eta arrazoiak besteei ematea, baina zuk ez dakizu ez bata, ez bestea egiten. Aterki txiki horregaz ez duzu lortuko euritik babestea, eta blai eginda loruko zara.

LASTOA



(Uztailak 19 - abuztuak 17)
Aspertuta zaudela askotan esaten duzu, baina egoera hori konpontzeko ez duzu ezer egiten. Denetan azkarrena zarela sarri erakutsi duzu, baina azkarrena izateak ez du esan gura adimentsuena izatea.

IRATZEA



(Abuztuak 18 - irailak 16)
Azken boladan triste eta goibel zabilza. Baina aspaldian ikusi ez duzun lagun baten bisitak asko poztuko zaitu. Berarekin ahaztuta dituzun tokiak eta pertsonak berrikusteko aukera izango duzu.

META



(Irailak 17 - urriak 16)
Daukazun gastuak gutxitu egin behar dituzula? Parranda gutxiago egin, eta ederto gutxituko zaizkizu. Amets ugari egiten dituzu gauetan, baina goizean, esnatzerakoan, egunerokotasuna nagusitzen da.

HAZIA



(Urriak 17 - azaroak 15)
Osasuna eta dirua zeure alde dituzu, baina ez, ordea, lagunak. Badakizu zure umorea eguraldia bezain aldakorra dela, eta liskar bat baino gehiago izan dezakezu umorearen kontura.


NEGUA



(Azaroak 16 - abenduak 20)
Urrun daukazun familiako kideagaz askotan gogoratzen zara. Zergatik ez diozu noizean behin idazten? Ondo etorriko zaizu, eta berak biziki eskertuko dizu. Mendira joaten zaren bakoitzean, berehala nekatzen zara; sarriago joaten hasi beharko zenuke.



GORLIZ IRRATIA
Uribe Kosta Irratia 107.8 FM
www.gorlizirratia.com



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Ezker eskuin

1. Azala kolorez alda dezaketen narrastiak. 2. Odoldu. 3. Edari bizi. Behorra arreske. 4. (Fam.) Belarri, sudur eta laringeen eritasunez diharduen medikua. Kontsonantea. 5. Letra grekoa. Milla kilo. Dauka. 6. Iodoaren ikurra. Gabezia. Rutenioaren ikurra. Kontsonantea. 7. Barazki mota. Ahariaren emea. 8. Lurreko poloak. 9. Zakoteak. Bihia, garaua. 10. Atzikia. Musika mota. Rubidioaren ikurra.

Goitik behera

1. Kolonia bati dagozkionak. 2. Usaimenaz sumatu. Antzinako eskandinaviarren letra mota. 3. Hegaztien aho gogor eta irten. Euskal Herriko ibaia. 4. Nafarroako ibarra, Zangozako merindadean. 5. Errenkada. Ukapen. 6. Edozein. Ez eme. Ehun. 7. Ogi, hitz elkarteetan. Bizk., lanruak. 8. Trebe. Herri, hiri. 10. Zibilizazioa. Abederako lehen letrak.

Soluzioak

B	R	K	O	R	V	K				
V	E	L	A	K	V	O	N	V		
V	K	V	U	R	U	B	H	U	L	
V	A	R	D	I	A	R	B	I	A	
R	U	R	V	Z	E					
U	D	V	N	O	T					
T	O	N	I	R	O	T	O			
L	E	I	R	E	L	I	K	O	R	E
U	T	A	Z	L	E	O	D	O	L	O
K	A	M	A	L	E	O	I	A	K	

asmatu eta irabazi > **bi lagunentzako bazkari bat**



Nor da?

- Oriotarra
- Arantzazun lan garrantzitsua egin zuen
- Eskultore bikaina

> Aurrekoaren erantzuna: Barbara Goenaga
> Irabazlea: **Lorea Martinez de Goñi* (Getxo)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidalí erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

Usategi
kafetegia



Usategi parkea z/g, **Algorta**
Telf: erreserbak: 94 460 64 13



IÑAKI ARESTIK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Katipunan taldea San Mamesen, 1960

Algortarrez eta udaldia Algortan igarotzen zuten lagun batzuek osatutako taldea zen Katipunan eta goian adierazitako urtean Athletic taldeak antolatutako Bizkaiko Gazte txapelketan parte hartu zuen. Athleticcek txapelketa hura antolatzeko arrazoia zen jokalaririk egokienak aukeratu nahi zituela, gero bere Lehen Gazte Taldea osatzeko helburuarekin. Argazkia finalaurreko partidakoa da eta Katipunan izan zen irabazlea; ostera, finala ere San Mamesen jokatu zen, baina galdu egin zuten Gazteluetaren aurka.

Taldearen izenari dagokionez, Filipinetako tagalo hizkuntzako berba da, eta Andres Bonifaziok Filipinetan sortutako ezkutuko elkarte baten izena zen Katipunan, hain zuzen. Izen ofiziala oso luzea zen eta horregatik, laburtzeko edo, Katipunan bakarrik erabiltzen zuten. Elkartearen helburua, herria espainiar kolonizatzaileengandik askatzea zen.

Zutunik: Inazio Moral, Luis Bolibar, Juan Garai, Perez, Asanza, Javi Gonzalez (entrenatzailea eta managerra) (GB), Iñaki Aresti (atezaina).
Makurturik: Javi Ormazza, Juan Artaloitia (GB), Aburto, Alfonso Maguregi (GB), Txetxo.

Oharra: UK 139. zenbakian, Oberentsu Txokoaren argazkia Maribe Urrestik utzitako irudia zela argitaratu genuen. Argazki hura Jose Lejarraga "Petiso"k utzi zigun.



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

AITOR IBARRA AUO > abeslaria

“Kuba eta Mexikora itzuli nahi nuke, lagun asko egin ditugu eta”

Testua: **Zuberoa Iturburu**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Ganorabako destroi bat.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

El dia de la bestia filman, Alex de la Iglesiaren *fan* hutsa naiz eta.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Ez dakit... Olentzero.

Orain zarena izango ez bazina, zertan gustatuko litzaizuke jardutea?

Egia esaten badizut, abeslari izan nahiko nuke. Bestela, musikan ibiliko nintzateke, hori izan da-eta beti nire ametsa.

Ohitura txarren bat?

Askok! Denok ditugunak azken batean, pixka bat gezurtia izatea, pixka bat alferra, desfasea...

Zer ez zenuke sekula barkatuko?

Ostea.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Bai, noski! Kuba eta Mexikora bueltatuko nintzateke, oso-oso ondo egon garelako beti inguru hartan. Biran handik ibili garenez, jende asko ezagutu dugu eta badugu lagun piloak. Beraz, berriro bisitatu nahi ditugu, bihotzean daroaguz eta.

Irakurri duzun azken liburua?

Ez dut irakurtzen.

Ikusi duzun azken filma?

Aspaldi ez dut ezer ikusi, zinemara aspaldi joan gabe... Beno, azkena telebistan atzo ikusi nuena, Miguel Angel Blancori buruzko hura.

Zein da zure ametsetako bat?

Nire bizitzaren bukaeran Karibearen bizitzea, Kuba aldean adibidez.

Eguna ala gaua?

Eguna, gehiago ikusten dudalako. ○

LABURREAN— Etsaiak musika talde lekeitiarrak jo du Sopelako San Pedro jaietan. *Auo* ezizenaz ezaguna da bere abeslaria eta jende askok ez du bere izena ezagutzen, Aitor Ibarra. Azken urteotan Pin Pan Pun Band egitasmoa-gaz ere ibili da batetik bestera, Etsaiak egin duen hainbat urtetako geldinean baliatuz. 2003tik diskorik grabatu barik egon ondoren, martxoan kaleratu dute *Apurtu arte* disko berria. Lelo horri jarraituz, arnasa hartzeko tarterik barik dabilta, kontzertuz kontzertu Euskal Herri osotik.

ALEMANIA ANDORRA AQUITANIA ASTURIAS AUSTRIA BELGICA BRETAÑA CANARIAS CATALUNYA CORNUALLS ESCOCIA EUSKADI GALES GALICIA IRLANDA ISLA DE MAN ITALIA NORMANDIA PORTUGAL SUIZA

XIV. ITSAS JOKO ATLANTIKOAK
ATLANTIC WATERSPORTS GAMES / JEUX NAUTIQUES ATLANTIQUES
XIV JUEGOS NAUTICOS ATLANTICOS
EUSKADI 2008 GETXO & SOPELANA UZTAILA 19 > 25 JULIO

AMTZALAZALEA ORGANIZAZIOZ
ANTZALAZALEA ORGANIZAZIOZ
BARRILEA NAUTIKOAK MAIEN SPOZSOREZ
BARRILEA SPOZSOREZ
LAGUNTZALEA KOLLABORAZIOZ

Getxo BFA OFB Sopelana metro bilbao Barceilo Herriak

Coca-Cola DEIA eitb